

Juan Garmendia Larrañaga

Euskal pentsamendu majikoa

Nestor Basterretxeak irudiztatua



23

Juan Garmendia Larrañaga Bilduma



1989. Pensamiento mágico vasco : ensayo antropológico / Juan Garmendia Larrañaga. – San Sebastián : La Primitiva Casa Baroja, 1989. – Título en cubierta : El pensamiento mágico vasco : ensayo etnológico

1990. Euskal pentsamendu majikoa / Juan Garmendia Larrañaga. – Donostia : La Primitiva Casa Baroja, 1990. – Título en cubierta: Euskal pentsamendu majikoa : saiakera etnologikoa

1998. Pensamiento mágico vasco = Euskal pentsamendu majikoa / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *Mitos. Etnografía.* – (Euskal Herria. Etnografía. Historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obra Completa; 5). – Donostia : Haranburu Editor, 1998. – Castellano, euskera

2007

Euskal pentsamendu majikoa / Juan Garmendia Larrañaga ; azala eta marrazkiak Nestor Basterretxea. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. – 97 or. : ir. – (Juan Garmendia Larrañaga Bilduma ; 23). – ISBN: 978-84-8419-087-5. – Nestor Basterretxeari eskainitako edizioa. – Azaleko izenburua: Euskal pentsamendu majikoa : saiakera etnologikoa

Azala eta marrazkiak:
Nestor Basterretxea



EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - Tel. 943 31 08 55 - Fax 943 21 39 56 - 20007 Donostia
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org

Fotokonposaketa: Michelena artes gráficas. Astigarraga
Digitalizazioa eta argitalpen elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin

Euskal pentsamendu majikoa

Juan Garmendia Larrañaga

Orria

Kredituak	
Aurreitza	7
Euskal pentsamendu majikoa	
Lan mundua	13
Errementariak otsoa sortu	13
Argiña Anbotoko damiari galdezka	13
Jesukristo morroi eredugarria	14
Jesukristo eta Pedro, gari-aletzaille, perratzaille eta zerrari ..	14
Agerpenak	19
Meza bat bear zuen ildakoa	19
Meza bearrean zegoen difuntue	19
Garbitokiko bi animek artzai bati	20
Danborra jotzen zuen zoro bati	21
Irule bati bere etxera bidean	21
Zure eriotz orduan oroituko naiz	22
Zure eriotz orduan oroituko naiz	22
Tolosan meza bat ateratzea eskatzen du	22
Bere arreba bateri aren illeta-ospakizuna eskatuz	23
Bere animaren alde esandako meza eskertzen du	23
Meza bat atera naia agertzen du, eta elizan azaltzen zaie ...	24
Aralarko San Migelen santutegian bildotxa oprezitzea eskatzen	24

Meza bat ateratzea eskatzen zuen ildako baten jokabidea ..	24
Meza bat ateratzeko eskatzen zuen ildako baten portaera ..	25
Leen ildako baten agerpena bere familiaren etxera, urrezko altxor bat erakustearren	25
Purgatorioko korrioaz	26
Direla urte batzuk illa zen iskribaua	28
Ama-alabak agertzen eta desagertzen dira arrastorik utzi gabe	28
Zaldizkoa	28
Bi idi gorri	29
Bi idi gorri	29
Sugarra ikusten mugimenduan	31
Deabruaren agerpenak	33
Irule bati	33
Andre gaixo bati	33
Deabruarekin ar-emanak	35
Ikazkin bati lagundu	35
Ikazkin batekin	35
Agertu zitzaion eta aren urteak jakin	36
Iru apaizen maixu	36
Txanbenat (Jaun Benat), deabrua eta Aita Santua	39
Igeltsero bati lanak egin	40
Azelaingo zubia ezin bukatu uzten dute	41
Deabrua nola uxatu	42
Zigorra. Arima erratua	43
Eskribau bat	43
Kapa bedeinkatua kentzen diote inpernura joan aal zedin ..	43
Mugarria ixilka tokiz aldatzeagatik	44
Ixillean mugarrie aldatzeagatik	44
Mugarrie ixillean tokiz aldatzeagatik	44
Mugarria ixillean lekuz aldatzeagatik	45
Mugarria ixilka aldatzeagatik	45

Orria

Jabeari itzuli bearra	46
Mateo Txistu	46
Pisti Joan	46
Zigorra	49
Diru-goseagatik	49
Mugarriak bear ez bezela aldatzeagatik	49
Mugarria bear ez bezela kentzeagatik	50
Lur zati bat lapurtzeagatik	51
Baso-aizkolari batzuei birao-zaleak zirelako	51
Ogi bedeinkatue zapuzteagatik	51
Gabaz apustu egiteagatik	52
Gabaz apustu egiteagatik	52
Aur bat ez zuzentzeagatik	53
Bere umeak kastigatzen etzituelako	53
Lapurra illargian arkitu	54
Ostiral Santuz arkumea jateagatik	54
Jai egunak ez gordetzeagatik	54
Donostiari, argi-endarra estraiñatu zuen egunean	55
Illak ez direla gutxietsi bear	55
Suak, penatzen zegoen anima agertu	56
Esku-bedeinkazioa eta lapurra	58
Debekua	59
Gabon gabeen ez dela arrantzara joan bear	59
Ostiral Santuz ez dela uztartu bear	59
Ostiral Santuz ez dela lixibarik egin bear	59
Meatxua	61
Eriotzako orduan ere ez dizut barkatuko	61
Leitzako jentillen amenazua	61
Ezkurrako jentillak	63
Ezkurrako dorrea	65

Eskalea	67
Zokorra	67
Santa Engrazi urri gorri	67
Eskalea eta kanpotar bixitalaria	67
Artzantza	69
San Donato eta artzaia	69
Artzaia eta sugea	69
Zozomikoteak. Illabeteak mintzo zirenean. Artzaigirozko kontatera	70
Abere eta landareak mintzalari zirenean	73
Astoa, belarra eta otsoa	73
Lapurra eta belea	73
Egontokiak eta iratxoak erri-kontakizunetan	75
Anbotoko Damiak aaria ostu artzaiari	75
Maria Roca Aitzgorritik Auzkolarreko kobara	76
Begizkoa edo begigaitza sortzeko almen gaiztoa	77
Goizuetan	77
Konjueroa	79
Odeipecan ezkutatuko personaia gaizto bati	79
Murumendiko Damia	79
Konjurua praillearen aurka	80
Ez du indarrrik	81
Konjuratzailleari deabrua agertzen	82
Sorgiñak	83
Sarrera-gixa	83
Badirela aditzera ematen dute	84
Bizi direnaren siñaleak	84
Eliza utzi ezin eta bere burua agertu	84
Bi kandela piztu eta ezagutuarazten da	86
Txakur itxurazko sorgiñak egizko sorgin zirela salatzen diote andre bati	86

Orria

Gaba beraiena da	87
Gaba beraiena izan	87
Betiko ezkutatu zen neska	87
Apaiz bati aolku eman eta deabruaren urteak jakin	88
Bere bizimodua	89
Txautokian	89
Erropa zuritzen errekatxo batean	89
Aizkolari azkarrak	90
Eta irulea	90
Eta itzaia	91
Artzaiei meatxua	91
Sorgiña eta auntza	92
Sorgiña eta oilloa	92
Sorgiña eta katu zuria	94
Sorgiña eta katu beltza	94
Sorgiña eta beor beltza	94
Etzuen kalterik egin nai	95
Sorgin biurrikeriak eta Lekunberriko bi korkox	95
Sorgin bat nola il	96
Sorgin baten eriotza	96

Aurreitza

Ez derizkiot oker aundi ba-dasaizut liburu onen izenburua zeatz ezarria dela beronen edukiari ba-gagozkio. Orrek oartarazten nau ez dezadala aaztu, eta aaztutzea deabruaren gauza omen da, Euskal pentsakera majikoa ziñez euskal munduari dagokiona dela; baiña ez euskaldunari soilki. Caro Barojak ongi dioen bezala, «Mitologian ez da ezer bata bestearen erabat kidekorik, baiña ia dena elkarren antzeko da»¹. Konturatzen naiz gogoeta au bein da berriz adierazia dela; oarra ordea egiña dago ta bego.

Bestalde, aitortu bear dut, ezbaiak izan ditudala lan au burutzeko beronen osagaiei dagokien ordenamenduari buruz. Berorren gai-sailkapena ipui, kontakti-zun naiz mitoa izateari begiratuz, guzti orri naas-maas aundi-samarra bait nerizkion. Ori dela ta gai-sailkapena al dudan zeatzena egitera jo dut, eta oartzen naiz kontaera batzuek zuzen sailkatzea zailla izan ba zait ere, beste batzuk ostera, toki batean naiz bestean ezargarri zirela, zerorrek irakurle igarriko diozunez.

Agerpenak dira, beren azalpen desberdiñetan, liburuaren mamirik aberatsena osatzen dutenak, noski. Agerpenak nor bakoitzaren bizikizunetatik jasoak eldu zaizkigu, sinismen-eraskin ezberdiñez ornituak; sustrai berdindunak ordea betiere, oiñarrizko leen-esanaiera urbiltzen gaituztelarik. Orrela dakusgu orrialde auetan jaso ditudan kontaera geientsuenek, pertsonaia berezi batzuen bidez eta eragiñez eratuak datozkigula, oso gutxiek dituzten almenez ornituak alegia, apaiza, berorren esanai zabalean arturik, eta gure artean zer esanik ez, katolikotar apaizak tarteko direla². Eta diogunaren egiztabiderik argiena, konjuruen oitura ezagunean daukagu noski. Orrelakoetan, eta Caro Barojak dioenez, nai duenaren eta nai litzakenaren artean bitartetu oi da irugarren bat, batzuetan aztia eta bestetan apaiza³.

Bizi-toki sakabanatuak lagundurik edo auzogune urriak, nekazari artean du irudimenezko kontakizunak bere alorrik gogozkoena. Ortxe, ingurugiro

1. Julio Caro Baroja: *Mitos vascos y mitos sobre los vascos*. Txertoa Argit. 1985, 63 orria.

2. Euskal mitologiak igaro dituen aldiaz oartarazteko, begira J. Caro Baroja aipatu obran, 7 eta 8 orr.

3. J. Caro Baroja: *Las Brujas y su mundo*. Alianza Editorial (2.ª ed.). 1966, 41 orr.

berezi orretan, izadiarekin arremanetan, illuna ta gaua ezagutzen eta bizitzen den lekuetan ageri da berez bezela, animismoa deritzana, eta beraz, or gertatzen da irudimen-sorkariak, mitoak bizi eta loratzeko girorik egokiena.

Mundu orretan, etxe eta auzo bata besteagandik urrun zirenean, kontatzen ziran asabei entzundakoak. Uste gabe aoz-ao mezu aberatsa aldarrikatzen zan, beroietan aixa uztartzen zirelarik kondaira eta kontakizunen alor mugagabea, eta ez aaztu irudimenera datorrena, noizbait zentzuen bidez bizi-tutakoa izan oi dela.

Diodanarekin, zalantzik gabe, aspaldiko nekazari munduari buruz ari naitela bistan da, gauregunoa iritar gertakizunekin bat bai dator geienbat, komunikabideen garapenari esker batikbat, giza-pentsakera multzokidetuz, orrek giza-portaeran dakarren ondorenakin. Kondaira gertakizunak aipatu ditut eta joan-aldiaren aldaketazko joera, irudimenean bizirik dirauna (kontakizun naiz mitoa, bereziki), eta onek, ain zuzen, sorgin-mundura narama, bertan gertaera larriak iruipen utsezko kontaera misterioetsuekin naasten direlarik⁴. Eta etzagula aaztu sorgin-mundu au, sozio-ekonomiko egitura jakin batzuetan sortzen dela, uri bizitza araupetu baten barnean pentsaeziñak bait dira.

Sorgiñak, gabeko iratxoak dira, gaua berena dute, berak lotsarik batere gabe noiznai diotenez: «gaua gabekoentzat, eta eguna egunezkoentzat». Sorgiñak deabruarekin itzarmenduta ibilli oi dira, aren morrontzapean. Jokaera arrigarritz antzaldatzen dira gutxien uste danean abere mota ezberdiñetan, aize-erauntsi zakarrean, eta abar. «Sorgiña da gauzarik arrigarrienak egiteko almen ezkutua duen izakia»⁵. Sorgin-jendea Jainko irudi naiz gurutzearekin uztartu eziña da. Cordobako Prai Martiñek ala dio: «(...), eta Gure Jauna gurutzean il zelako, ainbeste-raiñoko indarra du berak, berori den tokian etsaiak iges egin bear nai ta ez»⁶.

Ikuspegi orokorretik begiraturaz, sorgiñaz esan dezakegu, besteren ezak bizi dituela. «Zuek asko ereiten duzuenean eta gutxi jaso, guk ugari biltzen degu, eta zuek erruz baliatzen zeratenean berriz, gu urri ibilli oi gera». (Gu besteen ezezkotik bizitzen gera), ala zioten beiñola Nafarroako Intza erriko sorgiñek bertako andre bati.

Nere idazlan au osatzen duten zenbait kontaerak, maiz aski mendiruntz garamatzate. Mendia zerurantz bai dijoa, eta bere sakratutasunari buruz or agertzen zaizkigu Olinpo, Tabor eta Sinai mendiak, besteak beste.

4. Dokumentu eta bibliografi lanetan naiz ikerketetan alor onetan ba dira zenbait Euskal Erriari buruzko sorgin-gaiak aztertu dituztenak, eta oien artean denak aitatzeke noski, aipa ditzaket Pablo Gorosabel, Arturo Kanpion, Resurreccion M^a Azkue, Pio Baroja, Gregorio Muxika, Luis Uranzu (Luis Rz. Gal), Aita Donostia, Jose M.^a Iribarren, Juan Thalamas, Jose Berruezo, Manuel Lekuona, Angel Irigarai, Florencio Idoate, Carlos Claveria, Anastasio Arrinda, Florentino Portu, Jose M^a Satrustegi, *Brujología liburua, Congreso de San Sebastián. Ponencias y Comunicaciones*, eta Elkar Lanean taldearena, eta abar; baiña batez ere argitaraturiko lanen garrantziagatik, orri-garri zaizkit Jose Migel Barandiaran eta Julio Caro Baroja.

5. Xosé Ramón Mariño Ferro: *Satán, sus siervas las brujas y la religión del mal*. Xerais de Galicia, S. A. Argít. 1984, II orr.

6. Xosé Ramón Mariño Ferro: Aip. lan, 298, 99 orr.

Mendiak leizera garamatzi, eta ziur asko izango du berekin kontakizun aberasgarriren bat, eta orrek bidegurutzera urreratuko gaitu noski, bizitza arrunta eta irudimenezkoa elkartzen diren une ortara.

Estrabon idazlea degu, beste askoren artean, esaten diguna, bidegurutzetan jartzen zirela arreta berezia bear zuten eriak, erdiaroan batez ere.

Emen arkitzen gera baita ere mota askotako oikunen betebeharrarekin, adibidez ildakoarenetik elizarakoan gorputz-eramaille ta laguntzailleak egin bear zituzten errezoak; zenaren lastaira erretzea gaixotasuna zabaltzea eragoztearren, eguzki-sua piztea, eta abar. Ba dute ordea bidegurutzetako aintzin-oiiturek beren alderantzia, gineatarren gomendio onako onek adierazten duenez: «Gose zeranean eta jan nai, ez egin bidegurutzetan. Toki bazter bat aukera baizik, iñork ikusi ez zaitzan»⁷.

Mendia, leizea eta bidegurutzea aipatu ondoren, zubiaren garrantzia ere aita dezadan, kontakizun eta mitoen alorrean. Oraingo onetan zubia ez da igaro-bide, baizik eta giza kontroletik at gertatzen den ustegabeko miragarritzko zerbaiten kokagunea.

Bere nortasun nabarmenagatik ez da aztu bear kontaera eta mitoen zenbait kultur alorrean, lanbideek duten eragiña, eta guri dagokigunez, liburu onetan dakarzkigun aipamenak ori egizta dezakete noski.

Tubal-Kainen daukagu kobre eta burdiñaren leen-lantzaillea, eta etzaizkigu ezezagunak errementari edo suarotzari ezartzen zaizkien sorgiñ-almenak, beren lanetan nabaitzen direnak. Bere egokitasunagatik emen aurkez dezadan Salomon erregearen kontakizuna, bidebatez aipatuz Felix Urabaie- nek bere *El barrio maldito* eleberrian egiten dion olerkigirozko adierazpena: «(...) zintzarrigillea, brontze-artisaua (...). Ezkillaren soiñuak artalde bakoitzean ezberdiña izan bear zuen, eta bere mailluak, zintzarria moldatzean sorgin-trebetasunez lortuko zuen berezitasun ori».

Igeltseroek *Tutela* dute beren jainkoz artua, eta azpimarratzekoa da mesopotamiarrek beren artisau alorrean egin dituzten jainko deiturak, adibidez *Enki*, izadiaren eratzaille eta kontrol-duna, eta *Ninidu* sortuz, arotzen jainkoa; *Nisimug* errementariena; *Guskinbanda*, zidargilleena; *Ninzadim* artisau bitxigilleena, eta *Ninkurra*, argiñen jainkoa⁸.

Esanarekin, gai orretaz bildu izan ditudan azterlanen eta emaitzen berri emango dizuet. Beraz, neure antixun txikitik edango dut; neure-neuretik alegia. Eta argiñen, arotzaren eta errementariaren jainkoak aipa ditudalarik, gure kulturallorrean arrotzak noski, lanbide oietan barna sartuko naiz gaiaren mamira.

Juan Garmendia Larrañaga

7. H. Ramón Alvarez: *Leyendas y Mitos de Guinea*. Ares Argit. Madrid. 1951, 69 orr.

8. Juan Errandonea Alzuguren: *Edén y Paraíso*. Marova, S. L. Argit. Madrid. 1965, 105 orr.





Lan mundua

ERREMENTARIAK OTSOA SORTU

Arotza zutik lanean ari zen, eta lagun bat sartu zitzaion esanez: Zer ari aiz jo eta jo? Zer egingo duk burdin ortatik? Erantzuna arotzak eman: «Zabal-tzen bada, pala; makurtzen bada makoa». (Berastegin entzuna, Amada Etxe-berria, *Borda Txuri* baserrian, 1973: «Zuzena ateratzen bada, burruntzie; zabala ateratzen bada, pala, eta okerra ateratzen bada, iitaie»).

Arotzak beti jo eta jo, deus etzen ateratzen, eta kexaturik artu zuen bur-din gorria eta oi u bat egiñik, bota zuen aroztegiaren gibelesko leiotik sasiar-tera. Burdin goritua bota eta bat-batean sasiartetik otsoa atera zen.

Arotzaren laguna arriturik errira joan zen zer ikusi zuen erraitera; esanez arotz orrek otsua egin zuela eta lana debekatu bear zitzaiola. Erritar denak bildurik deliberatu zuten arotz orri lana eragoztea, pentsiona ordainduz lanean ari balitz bezela bizitzeko¹.

ARGIÑA ANBOTOKO DAMIARI GALDEZKA

Argin bat karobi-sabaia borobiltzen edo giltzatzen ari zan karaitzez. Eta Gipuzkoako *Landarbide* baserrian, Aiako Laurgainen esaten didate, toki eze-zagun batean, karobia pizterakoan, goialdea erortzen zitzaiela, bein da berriz. Erriko apaizeri gertakizunaren berri eman zioten; beraien eskuartzea ordea alperrikakoa izan zen, ez bait zuen balio izan ez gorako eta ez berako. Ori iku-sirik azti batengana jo zuten, eta onek gomenda zieten *Anbotoko Damiarekin* itz egin zezatela, eta aren aurrera zijoanek beti aurea eman bear zion –orre-lakoetan oi denez–, iñola ere erdeiñuz bizkarra eman gabe.

1. Baigorri (Zubi Punta auzoa): Jean Laxalde, 67 urte. Arotza. *Dendarienea* etxea. 1988ko. abuztuaren 19.

Damia bere oizko koban zegoen, betiko bere lan jakiñean, iruten alegia, aolku billa zetorkiona bertaratzean, eta berari arretaz entzunik, onela esan zion: «Zuk arriak atera eta karobia garbitu, eta ondoan zapoa arkituko dezu ezpañean ogi puska bat duela, ogi puska kendu eta karobi ondoan utzi ziri baten sartuta, arriaren erretzea zearo burutu arte».

Au entzun orduko, karobilaria aguro asko ezkutatu zan laisterka *Damia*-ren leizetik. Aurrez ikasia zuzen bete zuen, nola joka bear zuen, alegia, eta ori ikusirik *Anbotoko Damiak* au bota zion: «Ah madarikatua! Norbaitek ongi erakutsi dik»².

JESUKRISTO MORROI EREDUGARRIA

Unzurrungo baserritar batek urte guzira bi morroi izketatu zituen. Oia eman zien baiña goizean bere lanera etziran jeikitzen.

Deitzean, batek erantzun zuen: «Dena egingo da, etzaitz kezkatu, andrea», eta bein batean gaiñeratu zuen: «Larrañera buelta bat egizu eta ikusiko dezu gari eultzia nola dagoen».

Andrea larrañeratu zan, eta garbi-garbi zegoela ikusi zuen. Lastoa agoztegian eta garia aletagian zeuden. Ori ikusirik, andreak galdetzen die: «Nor zerate zuek?», eta erantzun au jaso zuen aietako batengandik: «Ni Jesukristo naiz»³.

JESUKRISTO ETA PEDRO, GARI-ALETZAILLE, PERRATZAILLE ETA ZERRARI

Jesukristo eta Pedrok baserri bateko amonari gau-ostatua eskatu zioten, eta beroiek gari jotzeko doai miragarria azaldu zuten. Bi gizonak oeratu ziren; Pedro oe ertzean eta Jesukristo baztar aldetik.

Biamonean, amona bi gizonak jaikiaraztea joan zen, eta ixkiñakoari astindu bat eman zion, Pedro jo egin zuen.

Amona ezkutatu zenean, Jesukristok Pedrori onela esan zion: «Ori berriro ere etorriko dek eta berriz ere ixkiñan jarraitzen badek jo egingo au».

2. Ayan (Laurgaingo auzoa): R. Zubimendi Zinkunegi, 67 urte. *Landarbide* baserria. 1987ko. azaroaren 19.

Argin oni gertatutakoak nolabait Iraetako olagizona dakarkit burura, Pedro de Sudupek jaso eta Jose Migel Barandiaranek emandakoa. Ikus *Obras Completas. II, Eusko-Folklore*, 16 orr.

3. Iltzarben (Ollaran): Raimundo Ollacarizqueta Oteiza, 74 urte. *Txatxerena* etxea. 1988ko. uztaillaren 17.



Amona bai azkar asko itzuli ere bi gizonak jeikiaraztera, esanez: «Leen ixkiñakoa jo diat, oraingo onetan baztarrekoa jipoituko diat». Onela berriz ere Pedrok epelak artu zituan.

Gari denbora zen, uzta-aldia, jeiki ziren gizonak eta amonak gau-ostatua ordaintzeko asmoz, lanean jarri zituen. Ordun Jesukristok amonari esan zion gari guztik pillatzeko, eta orrela egin ondoren, pilloari su eman zion. Su arek etzun erretzen, baizik garia, lastoa eta auka banatuta utzi. Amonaren etxe-koak au ikusirik, urrengo urtean gauza berdiña egin zuten, baiña gari pilla guztia erabat erre egin zitzaien.

Jesukristok eta Pedrok beren bideari jarraitu zioten. Perratoki baten aurretik igaro ziren eta lantegiaren ate gainean, aurrekaldetik, letrero bat arkitzen zen onela zioena: «Ni naiz munduko perratzaillerik onena». Aipatu-tako iragarkia irakurriz, onela esan zioten batak besteari: «Gizon orri, perratzaillari, lezio bat eman bear zioau».

Perratokian sartu ziren eta perratzaillari esan zioten zaldi baten anka bat perratzen uzteko. Perratzaillaren baiezko erantzuna entzun ondoren, bi gizon aietako batek zaldiari anka askatu, eten zion, eta azkar txingure gainean perratu. Ondoren, bereala, bear bezela perratutako anka zaldiari erantsita utzi zion.

Bi gizon arrotzak sutegitik aldegin zutenean, perratzaillak onela esan zion bere mutillari: «Guk ere oiek bezelaxe perratu bear diagu!» Errementari mutillak anka kendu zion zaldiari, bai perratzaillak perratu ere, baiña gero ezin ankik bear zen tokian berriro ezarri! Au ikusirik, perratzaillak bixitari aien atzetik irten zen, zer gertatzen zitzaien adieraziaz. Bi gizonak lantegira itzuli ziren eta bereala zaldiari anka bere lekuan bear zan bezela jarri zioten. Baiña beren egitekoa bete ondoren, onela agurtu zuten perratzaillak: «Kendu zak or kanpora begira daukaken iragarkia: Ni naiz munduko perratzaillerik onena, esaten duena».

Bi gizon arrotzak bideari jarraitu zioten eta zerrari batzuek egur-lanean ikusi zituzten, eta alkarri esan: «Aueri ere lezio bat eman bear ziegu», eta sarreraz onela agurtu zituzten: «Guretzat lan pixka bat ba al duzute?» Au entzunik zerrariak elkarri esan zioten: «Aueri etzeok lanik ematerik, gizon aul xamarrek dirudite», eta lan eskeari ezezkoa erantzun zioten.

Orduan galdetu zuten ea nola moldatzen ziren egurra ebaki-aurretik mar-katzeko. Zerrariak erantzun zioten, soka ikatz autsarekin zikindutakoa erabil-tzen zutela lan orretarako. Zerrari aiek egurra markatu zuten eta ondoren zerraz ebaki.

Langintza onela ikusirik, bisitalariek beraien soka bat atera zuten eta bareekin egurra jo, markatu eta moztuaz, aldi berean.

Au ikusirik, zerrariak soka berezi ura eskatu zieten, eta bereganatu zute-nean lanari berriro ekin zioten, baiña sokak etzuen egurrik ebakitzen.

Zerrariak gizon arrotz aien atzetik atera ziren, adieraziz beraien sokak etzuela egurrik ebakitzen, eta au entzunik, erantzuna onelakoa izan zuten: «Soka orrek ez du zuekin egurrik ebakiko»⁴.

4. Tolosan (Usabal auzoa): Juan Krutz Errazkin Albizu, 82 urte. Soroa baserria. Zestoan: Jose Ibarbia Iturria, 81 urte. *San Juan Zaharren egoitza (Errezilgo Basabe Goenako baserrian jaioa)*. 1988ko. azaroaren 16.

Garia aletzearen eta perratzearen kontakizuna, funtsean, Azkueren bidez ezagutzen dugunaren antzekoa da. Ikus *Euskalerraren Yakintza II*. Espasa-Calpe, S. A. 1942, 164-166 eta 433 orr. Perratzaileak gogorarazten dit, era berean, A. Donostiak jasotako Zaldia ferratua. Ikus *Obras Completas I*, 152 orr.



Agerpenak

MEZA BAT BEAR ZUEN ILDAKOA

Igoako etxe batean biltzen ziren neska gazteak errokara, eta zenbait gauzez ilkanpai dangadak entzuten zituzten amabiak aldean. Asieran batak besteari zioten mutillak izango zirela noski, orrela beraietzaz barre egin nairik. Alako egun baten ordea, aiekin solasean ari zirela, mutillak esan zieten etzabiltzala berak neskei adarra jo nairik. Gauzak orrela, aitatutako ezkil-otsa berriro ere entzunik, mutil guztiak eliz-atadira urbildu ziren eta atea erdi irikita arkitu, aldare-gaiñean uste gabeko argia zekustelarik, baiña etzan iñor aurrera sartzen ausartu.

Ordun erriko artzai gizarajo samar batez oroitu ziren, eta esan zioten ea elizan sartu eta aldarera urreratuko zan. Onek bete zuen bere erritarren eskabidea eta ara non arkitzen dan aspaldi ildako erriko erretore izanarekin, meza emateko jantziz jantzirik ekiteko gertu. Gazteek galde egin zioten artzaiari ea akolitotza egingo zuen, eta eskatu bezela bete zuen agindua.

Geroago, artzaiari galdetzean apaizak meza ondoren zer egin zuen, erantzun zien, ba, kandelak itzali eta desagertu egin zela⁵. Beste bertako basetxe batean ordea, beste au konta zidaten, alegia, apaiza akolitoaz iru bizkarreko emanaz agurtu zela.

MEZA BEARREAN ZEGOEN DIFUNTUE

Agustin Zubillaga, neri berri eman zidan Gertrudis Zubillagaren aita, Heraniko *Akan* baserrian jaio zen.

Hollin izeneko etxean bizitu zan, meatztegiaren urrean, eta errepidea bitarteko, *Loiarteanean*, biak Ezkurrako barrutian, bizi zan Manuel Etxabe.

5. Igoan (Basaburua): Antonio Urriza Barberia, 78 urte. *Otxanbela* etxea. 1985ko urriaren 20.

Agustin Zubillaga karretoan ibiltzen zan, bost mandodun karro batekin, aldapatan bi bei erantsirik.

Hollin etxe-bealdea mando eta beien ikuillu zan, baita ganaduaren agotz eta pentsu-toki ere.

Gertrudis Zubillagak amalau bat urte izango zituen aipaturiko Manuel Etxabe il zenean, eta gogoan du aitak egin zuela aren ilkaxa elizara eta ildegira eramateko. Senarra iltzean, Etxaberen alargune Aresora joan zen berez angoxea izanik.

Gertrudis Zubillagari entzunik, egunak beti berdinak izaten ziran bizi-giro artan, gau baten familiaren loa ustegabe eten zen arte ikuillutik zetorren ateleioen zaratas.

Esnatze zakar au bein da berriz gertatu zen, eta alako baten, Agustin Zubillaga, kriseillua eskuan zuela eta bere alaba ondotik aizkora batekin, jetxi ziren zer ote zen ikustera; baiña ze ustegabea, ikusirik dena eguneko lanak amaitzean utzi bezelaxe zegoela! Gaberoko ixkanbillak ordea segi egiten zuen len bezela, eta gau aietako baten Gertrudis leiora irten eta ikusi aal izan zuen zakurtzar bat zijoala etxebizitzaraiñoko aundia. Gertrudisek bere aita esnarazi eta onek ere ikusten du, eta baita lanetik zetozenan urreko meatzgizonek ere. Gizon auek Agustin Zubillagaren etxera joan eta ikuskizunaren berri eman zioten patar trago batzuk egiten zituztelarik izuaren aazgarri.

Meatz-gizon eta gurdizaiak bat zetozten ikusi zuten mamutzar ura Etxaberen arima zela aitortzean. Ori ikusirik, Zubillaga, Areso errira joan zen, Etxaberen alargunaz galdetzera, ea sendiko norbait iltzean, zegokion oitura eta erlijio-arazoak bete ote zituzten ala ez. Alargunak aitortu zion urteburuko Meza atera gabe zegoela, ba zirela urte bi il zenetik.

Atera ziren urte-mugako Meza eta gaiñera beste bat, Etxaberen arimarentzat, Agustín Zubillagak agindu bezela. Orrela desagertu ziren erabat zakurtzarraren agertzea eta gau-zarata eta iskanbilla guztiak⁶.

GARBITOKIKO BI ANIMEK ARTZAI BATI

Etxegarate aldean, *Galardi* izeneko lekuan, ba omen zen artzai bat ezerगतik bildurtzen ez zena, izukaitza alegia.

Garai artan Ataunen bi apaiz gazte arkitzen omen ziren, eta artzaia bildurtu egin bear zutela elkarri esan omen zioten.

6. Goizuetan: Zeferino Etxegia Berroeta, 63 urte, *Paskoltzenea* etxea. Gertrudis Zubillaga Arrieta, 84 urte. *Fuentenea* etxea. 1986ko. irailaren 21.

Ortarako, rokete edo elizator zuriz jantzi, eta gabaz, pago-zuaitz baten gainean antsika asi omen ziran, artzai-txabolatik urbil.

Onela, artzaiak lorik ezin artuz eta txabolatik irtenaz, bat-batean antsilarietara galdetu omen zion: «Zer nai dezue?» «Purgatorioko animak gare eta meza bearrean gaude zerura joateko».

Au entzunik eta ikusirik, artzaiak galdetu omen zioten dirurik ba al zuten. «Ai, dirua eduki izan ba gendu!»

Ba, orduan galduak zerate, artzaiak erantzun. Gure errian bazeudek bi apaiz gazte, eta dirurik gabe ez ditek kolperik jotzen.

Au esanez, bat-batean txabolara berriro sartu omen zan. Baiña ala ere, arbola gaineko apaizak antsika jarraitzen zuten, ixkamilla bizian. Au onela, artzaiak makil luze bat artu eta berarekin zuaitzera igoaz, bi anima erratuek makiltzen asi zan, eta bai azkar asko, aal zuten bezela, auek purgatorioko bidea –Ataungo bidea– berriro artu⁷.

DANBORRA JOTZEN ZUEN ZORO BATI

Andoainen ero bat ibiltzen omen zan danborra joaz, eta gau batean atera omen zitzaion anima bat, bere alde Santa Krutz ermitan abadeak meza bat atera zezala eskatuz.

Ordun eroak galde egin omen zion: «Dirurik ba al dek?» Animaren erantzuna: «Beste munduan ez dago dirurik». Eta eroak: «Ba, dirurik ez badek, Andoaingo abadeak ez dik aterako Santa Krutzen mezarik».

Au esanik, bat-batean jarraitu omen zuan, trukutun, trukutun, bere danborra joaz⁸.

IRULE BATI BERE ETXERA BIDEAN

Liñuarekin arie egiteko neska taldea baserri baten biltzen zan. Basetxe au *Garate* izenekoa izan ziteken.

Neska aietako bat, izutzen etzana, bere lan-saioa amaitu ondoren, gabaz txistuka etxera bidea artzen zuen.

7. Idiazabalen (Urtsuaran auzoa): Agustina Aierbe Goikoetxea, 51 urte. *Pagoeta Goikoa* baserria. 1975ko. irailaren 12.

8. Erbitin (Basaburua): Seberiano Ocoz Ezkurra, 74 urte. *Etxebeste* etxea. 1980ko. urriaren 18.

Bere lankideek jokaera au ezaguturik, egun baten izutuarazi bear zutela erabaki zuten. Orretarako, arriburu bateri gizaaurpegiaren tankera emanaz eta kandela piztua barnean zuela, kanposantu inguruan, igaro bear zuen biderdian utzi zuten.

Urrengo egunean, oiturazko orduan, neska bere jakiñeko bidean aurrera joan zen, eta ildakoaren irudi-gixa arkitzen zan arbi-ondoagana urbildu zanakin batean, bai azkar ostikoz jo, eta txistu egiteari utzi gabe, aurrera jarraitu zuen.

Neska bildur-gabe ura *Irabiazpi* baserrikoa zan eta andik bereala betiko izkutatu omen zan⁹.

ZURE ERIOTZ ORDUAN OROITUKO NAIZ

Gizaldi onen asieran, Garzaron erriko, Arozena abizendun gizon bati, bein da berriro bere ezagun izandako ildako bat agertzen zitzaion. Urteetan zear gertatu zitzaion agerpen ori, eta zanak eskatzen omen zion beragatik zerbait egin zezala. Aipatutako Arozenak, meza bat aterazi zuen, eta arima ura ezkutatu zen esanaz: «Zure eriotz orduan oroituko naiz»¹⁰.

ZURE ERIOTZ ORDUAN OROITUKO NAIZ

Nafarroako Leitzan bizi zen alargun bati alaba bat il zitzaion Argentinan.

Berri triste ori jakiñez gero, alaba ori bein da berriz agertu zitzaion, zerura sartzeko bear zuen meza atera zezaiola eskatuz. Ikuskizuna beti toki berean agertzen zan, mandioko lekurik garbi eta txukunenean alegia, eta agurtzean bere aitari esaten zion eskatzen ziona betetzen bazuen etzitzaiola aren laguntzarik eriotz orduan faltako.

Aitak meza bat ateratzeko agindu zuen bere alaba gaixoaren animaren alde, bertara joanaz, eta ondoren kanposantuko atera urbildu zen, elizatik gertu, bertan uso zuri batek agurtzen zuelarik, bi aldiz, gero bereala ezkutatu¹¹.

TOLOSAN MEZA BAT ATERATZEA ESKATZEN DU

Intzako sendi batek bisitalari bat izan zuan, esanez: mundu onetan izan zan bitartean etxe artan bizitua zala, eta orain meza baten bearrean zegoela, eta meza au Tolosan atera bear zutela.

9. Baliarrainen: Antonia Garmendia Garmendia, 60 urte. *Garate* baserria. 1976ko. uztaillaren 19. Gaztelun: Domingo Etxeberria Aranalde, 70 urte. *Usurburu* baserria. 1984ko. ekainaren 14.

10. Iaben (Basaburua): Migel Aulza Beunza, 80 urte. *Juan Jose-enea* etxea. Agustín Beunza Larumbe, 64 urte. *Elizmendia* etxea. 1987ko abuztuaren 15.

11. Areson: Migel Barandarin Labaien, 54 urte. *Olatxeta* etxea. 1971ko. ekainaren 30.

Au entzunik, etxeko gizaseme bat zaldi gaiñean Tolosa aldera jo zuan, bere alboan, oiñez ikustzaillea zeramala.

Meza entzun ondoren bisitalaria bereala ezkutatu zan, eta lntzako biztanlea etxera itzuli bere zaldi gaiñean¹².

BERE ARREBA BATERI AREN ILLETA-OSPAKIZUNA ESKATUZ

Hernaniko gazte batek Cuban bete zuen bere soldaduzka, bertan berezko eriotzez illaz. Familiak berri triste ori jakin orduko, ildakoa agertzen omen zitzaion soldadu jantziz, baserrian bizi zen arreba bateri. Illunabarrean aurkezten zitzaion, eliz-nausiko kanpaiak illun-ezkillilla jotzean, eta baita goiznabarrean ere, argiezkillarekin batean. Ikuskizun ori zela eta andreari ondoeza egiten zitzaion, eta bere senide ta auzoak gaixotzat jotzen zuten. Baiña gaixoaren tema ikusirik, galdetu zioten ea nolako jazkera zuen anaiak, eta arek esandakoa osoro bat zetorren aren Cubako soldadu lagunek aretzaz ziotenarekin. Onekin, agerpenak berritzean, esan zioten gazteari galde zezaiola anaiari ea zer nai zukean orrela jokatzuz. Ala jakin zuten aren naia zela bere alde illeta-meza egitea. Eguna eta ordua izendatzeko eta bere arreba joan zedilla elizkizunera pañelu batekin, elizatik irteeran ur bedeinkatua artzean erakutsiz.

Eliztarrek eliza zeoro bete zuten, eta sagarakoan, ildakoa agertu zitzaion bein berriro arrebari, onek kordea galdurik, orrelakoetan gerta oi denez.

Illeta ondoren, eta esana beteaz, pañelua ateratzean, zenaren atzapararrastoa geratu zitzaion bertan garbi-garbi¹³.

BERE ANIMAREN ALDE ESANDAKO MEZA ESKERTZEN DU

Familiako bateri, bere sendiko azkena ildakoa azaldu zitzaion, purgatorioan sufritzen zegoela adieraziaz, eta meza batzuen bearrean arkitzen zela zerura sartzeko.

Senideak erantzun ona eman zioten aren naiari, eta azkeneko meza amaitu ondoren, ildakoak ur bedeinkatua eskura eman zion bere etxeko bati, esanaz: «Eskerrik asko, zerura noa»¹⁴.

12. Arriben (Aritz Arana): Jose Otermin Gibelalde, 64 urte. *Gastesi Txikia* etxea. 1985ko. irailaren 12.

13. Salvatierra-Agurainen (San Martin auzoa): Karmen Goñi Oiarzabal, 87 urte. Hernanin jaioa eta bizitua irurogei urte arte. 1988ko irailaren 28.

14. Larraulen: Norberta Amonarriz Garmendia, 69 urte. *Larrola* baserria. 1980ko. irailaren 25.

MEZA BAT ATERA NAIA AGERTZEN DU, ETA ELIZAN AZALTZEN ZAIE

Ildako bat bere senitarteko bati aurkez zitzaion, agertuz meza baten premian arkitzen zela zeruan sartzeko. Agerpen-ikusleak, apaiz batekin itzegin eta baiezkua ematea erabaki zuen arima erratuaren naiari. Meza aurretik, aipatu degun senideak ikusi aal izan zuen ildakoa, ur bedeinkatua ematen ziolarik. Ikuskaria elizkizun osoan zear begien aurrean eduki zuen eta, amaitzean, bat-batean ezkutatu zitzaion¹⁵.

ARALARKO SAN MIGELEN SANTUTEGIAN BILDOTXA OPREZITZEA ESKATZEN

Betelun bizi zen Errazkingo artzai batek konta zidan ari bere aitak konta izana, eta arek bere lagun bati entzuna, onela zioena:

Artzai batek Aralarko San Migel Santutegira arkume bat zeraman ofrendarako, bere artean aldi artan oi zenez. Baiña bidean zijoala, tentazioa sortu zitzaion aukera-aukeran. Zazpi pezetatan saldu zuen aberetxoa. Artzai ori il zen, eta andik urte batzuetara, bidegurutze baten, kontakizun onen leenengoari azaldu, erregutuz bere izenean bildotx eskeintza egin zezala Aralarko Santutegian, orrela an zuen zorra kitatu eta betiko atsegiñera sartu aal zedin¹⁶.

MEZA BAT ATERATZEA ESKATZEN ZUEN ILDAKO BATEN JOKABIDEA

Nere berriemailleak bere aita Jose Maria Lasarte, Igoan (Basaburua Mayor) jaioa eta 1915gnngo. urtean ildakoari entzuna: Gizon bat sega bizkarrean zuela iretzia –garoa– ebakitzera joaten zan. Ortarako ataka batetik pasa bear zuen, eta ara iristen zenean, portilloa bere-gixe irekitzen zitzaion, eta segalaria ikaratuta gelditzen.

Urrengoan ere bere sega bizkarrean zuela ataka artara eldu zan eta bai portilloa beregixa ireki ere.

Nekazaria berriro ikaratu eta erriko apaizena jo zuen. Abadeari zer gertatzen zitzaion agertu zion eta ia zer egin bear zuen galde. Apaizak orduan onela erantzun zion: «Esaio: Onez eldu baaiz mintza adi, eta gaitz egitera eldu ba-aiz, ondatu adi».

Bere garaian gizona apaizaren esanera mintzatu zanean, bere lagun izandako bat purgatorioan zegoenaren erantzuna onela entzun zuen: «Begira zak, meza baten faltan natxeok emen».

15. Tolosan (Usabal auzoa): Juan Krutz Errazkin Albizu, 82 urte. Soroa baserria. 1988ko. urriaren 30.

16. Betelun: Santos Zubillaga Jauregi, 80 urte (Errazkinen jaioa). *Ipiarrea* baserria. 1975ko. uztaillaren 27.

Segalariak berriro apaizarengana jo zuen esanaz bere laguna zala portilloa irekitzen zuena eta meza baten bearrean arkitzen zela zerura igotzeko.

Apaizak bereala meza atera zuen eta au bukatu orduko arrigarritzko argitasuna sortu zan eliz barnean, eta apaizak eta nekazariak entzun aal zuten zerura zijoala¹⁷.

MEZA BAT ATERATZEKO ESKATZEN ZUEN ILDAKO BATEN PORTAERA

Naparroako Gaintza urixkako gizon baserritar bat, Karlos izenekoa, etxe-koek ez jakiñik Ameriketara il zan.

Au gertatu ondoren, bere jaiotetxean gauza miragarriak gabaz gertatzen asi ziran; atek berekasa irekitzen; ganaduak bere burua askatu eta ikulluan zear ibilli; ardiak larrera joan, kalte aundiak egiñaz; etxeko gauza bearrezko asko izkutatu edo lekuz aldatu, eta abar. Adibidez, etxenagusiaren abarka bat atariko askan agertu zan.

Au ikusirik, baillarako sendagilleari, etxeko aidea zanari, zer gertatzen zitzairen esan zioten. Sendagilleak ez zuen sinistu esan ziotena eta berak alanbrez itxi zituen baserriko atek; baiña alperrik, atek berekasa irikitzen jarraitzen zuten.

Gauzak onela, sendagilleak esan zion etxeko nagusiarri apaizari adierazteko gertakizuna. Baserritarrari entzun ondoren, apaizak galdetu zion ia Ameriketara edo beste nonbait, familiko norbait illa ba ote zuten. Ikerketara asi ziren eta jakin aal izan zuten aipatutako Karlosen arrastorik etzala, illa zela alegia. Bereala Amabirjiñe Errosariokoaren Kofradiko meza Gaintzara atera zuten Karlos zanaren animaren izenean. Eta onela lortu zuten pakea eta atsedena Gaintzako baserri artan¹⁸.

LEEN ILDAKO BATEN AGERPENA BERE FAMILIAREN ETXERA, URREZKO ALTXOR BAT ERAKUSTEARREN

Juan Urzelai Biainek, Pedro Urzelai bere aitari entzuna zion. baserri baten bazela altxor bat, bertako biztanleek etzekitelarik.

Bein baiño geiagotan sendi orren gaueko pake-giroa, beko tximinitik zetorren abots zarataz austen zan Itzotsak beti galdera ber-bera errepikatzen zuten: «Jausiko nauk ala ez?»

17. Auzan (Ultzama): Antonio Lasarte Ostiz, 80 urte. 1988ko. abuztuaren 14.

18. Gaintzara (Araitz Arana): Ramon Askarai Arsuaga, 55 urte. *Matxindo* baserria. 1984ko. urtarrilaren 11.

Ori entzutean, etxetik irten eta teillatura begiratzen zuten; baiña ez zuten iñortxo ere ikusten. Oiuak ordea: «jausiko nauk ala ez?», segi egiten zuen gelditzeke gauero; alako batean ordea, erantzuna bide beretik etorri zitzaion, tximini zulotik alegia: «jausi ai gura bok!» Ori esan bezin laister, pertsonaia misterioetsua, familiariko aitona ain zuzen, eta aspaldi illa, su gaiñera erori zen, kellarrez beteta, esaten zuelarik: «Suan azpiko txapia jo ukabillaz eta orren beian dagon urria zuentzako». Aren naia bete ondoren, zana ezkutatu zan etorritako bidetik. Gau ura ezkeroztik iñork etzuen gauixiltasunik autsi basetxe artan, eta bertako familiak aitorra bereganatu zuen¹⁹.

PURGATORIOKO KORRIOAZ

Nafarroan, Erro ibarreko izen berori duen errian, «Purgatorioko Korrioaz» itzegin zidaten. Emakume bat berrezkondu zan; baiña lengo senarra aitazetik etzan isiltzen. Beretarren artean jakiñekoa izaten zen aren betiko leloa, aurreko aren ezkontzaren ederra errepikatzea alegia.

Egun batez, delako andre orren etxeko ate-joka gizon bat, eta barrutik andreak: «nor da?», galdetzean, erantzun au artu zuen: «Ni Purgatorioko Korrioa naiz». Au entzutean, andre larrituak korrika joan eta atea ireki zuen oiuz: «Ai, ai, lengo senarra illa dut eta ez dakit aren berririk». Purgatorioko korriuak erantzuten ziolarik: «Bai, zuk jakin nai zenduken gizon ori Garbitokian dago eta meza baten zai zerura joateko». Eta, erantsi zuen, «tristeena da ez daukala dirurik meza bat ateratzeko». Orduan andreak bere eskuan jarri zuen zeukan diru guzua, eta gizona aguro asko ezkutatu zitzaion andik.

«Purgatorioko Korriuak» aldegin zuen eta bigarren senarra bere etxe-ata-dira sartzean bere emazteak pozari eutsi eziñik dasaio: «Purgatorioko Korriuak agurtu nau eta esan, nere lengo senarra Garbitokian sufritzen dagoela zeruratzeko meza baten bearrean, eta nik ori entzutean, gendukan diru dena eman diot mandatariari, orrela zeruko ateak zabal dezaizkieten».

Ori aditzean, senarra aserre-bizian, zaldia artu eta mandatari ezezagunaren atzetik abiada bizian joan zen. Laister topo egin zuen gizonetzko batekin –billatzen zuena, ain zuzen–, eta berari galdetu zion ea «Purgatorioko Korrioa» ikusi ote zuen. Baiezko erantzuna jaso zuen, eta, eskuakin erakutsi zion, bide artatik igo zela, zaldiz igo-eziñekoa bera.

Orduan billatzaileak, zaldia utzi eta alik laisterren ekin zion esandako bideari; baiña etzuen iñor ikusi. Atzera itzultzean ordea zaldirik etzegon an, eta gauza onik etzala sumaturik, oiñez etxeratu bear izan zuen. Bertaratzean, eta emazteak zer gertatu zan jakin nairik, senarrak azaldu zion «Purgatorioko

19. Oñatin (Arantzazu): Juan Urzelai Biain, 66 urte. *Soroandiet*a baserria. 1986ko. urriaren 19.



Korriuakin» egon zela eta lenbailen zeruaz gozatzeko zor zuen meza atera aal zezan, bere zaldia eman ziola²⁰. Kontakizun onek Cervantesen *El Mensajero de las ánimas* oroitarazten dit.

DIRELA URTE BATZUK ILLA ZEN ISKRIBAU

Nafarroako erri baten bere bizia bukatu zuen iskribau batek –aize eguna ote zan?–, eta garai artan gaztea zan Santos Zubillagak gogoan du aren erioztaz mintzatzean, Domingo Igarabide artzaiak *Joanagorri Zarra* –1915ean illak– konta oi ziola urrutiko bidegurutze baten ildakoa aurkeztu zitzaioela zaldi ikusgarriaren gaiñean eta bi zakur eder berekin zituelarik. Au ikusirik, Igarabidek azkar asko eskuan zeraman zaku utsa aurpegira bota zion iskribauari, oiuka eta erdeñuz esaten ziolarik: «Oraindañoako eraman dituk eta au ere eramantzak». Orrekin adierazi nahi zion zaku utsa bete zezala besterenarekin, ori izan bai zen Domingo Igarabideren ustez iskribauaren apiziorik aundiena²¹.

AMA-ALABAK AGERTZEN ETA DESAGERTZEN DIRA ARRASTORIK UTZI GABE

Intzeko baserri bateko emakumea ur billa joan zen. Errekan ume bat ikusi zuen eta etxera eraman. Baiña etxean itzik etzioten ateratzen.

Umea esne-zale aundia zen, eta au jakiñik, esne ontzia laraztetik zintziilik egosten jarri zuten eta aurra ontziari kontu egiten. Onela entzutea izan zuten: «Txuria gora, txuria gora» (irakiten zegoen esnea gora, alegia).

Biaramonean andre bat azaldu zan etxe ontan eta au ikusirik, umeak esan zun: «Au nere ama da!» Adierazpen onekin bat-batean ama-alabak betiko izkutatu ziren arrastorik utzi gabe²².

ZALDIZKOA

Domingo Askarai Goikoetxea, Araitz ibarrean, Gaintza erriko *Ostokaitz* deritzan baserrian bizi zan, eta egun batez, Beteluko trabena batean egon zen gaberdia pasa ta gero arte.

Noizbait etxeruntz abiatu zen, eta bere bidean *Azkumendi* gaiña jo zuenean, Gaintza, Intza eta Uztegiñen barrutian, bere ondotik igaro zen zaldun bat, zaldi eder baten gaiñean, Askararentzat dudik gabe, Baillarako sendagillea zan.

20. Erron (Erro Arana): Jose Arraiz Zubiri, 83 urte. *Martin Mari* etxea. 1986ko. urriaren 7.

21. Betelun: Santos Zubillaga Jauregi, 80 urte. *Ipiarrea* baserria. 1975ko. uztailaren 27.

22. Uztegin (Araitz Arana): Jose Antonio Artola Gibelalde, 83 urte eta Jose Artola Saralegi, 48 urte. *Sorozabal* baserria. 1989ko. urtarrilaren 29. Kontakizun onetan ez dugu aaztuko sorgiñen esne zaletasuna.

Domingo Askaraik eskatu zion bein da berriz itxoiteko eta zaldizkoaren ondoren laisterka abiatu zen; baiña arek aurrera egin zuen aberearen trote-txoa geratzeke.

Orrela zijoazela, Gaintzako *Estebanenea* baserri aurrera eldu ziren, eta bat-batean jaiki zen bertan argitasun aundi bat, ixildu zan perraotsa ere eta desagertu ziren zaldi eta zalduna.

Biamomenean baserritarrak galde egin zion osagillari arestiko gertakizun miraritsuari buruz; baiña onek ezertxo ere ez zekiela gauz orretaz ziotsan, gau orretan ez bai zen paraje oietan ibilli, ez eta bere etxetik irten ere²³.

BI IDI GORRI

Nere berriemaillearen aitona *Agirain* baserrian bizi zen, Amezketako Ugarte auzoan altxatzen den mendian kokaturikoa.

Aipatu degun menditarra, Jose Inazio Ormaetxea zen, eta ia astelenero Tolosan egiten den ganadu-perira joan oi zen. Goizean goiz, eguna urratzean ateratzen zan etxetik, eta bueltako ordu jakiñik etzuen izaten. Oiñez egin oi zuen beti joan-etorria.

Iragan gizaldiko azken urteetako astelen bat zen, bere etxeruntz zijoala, beste lagun batzuekin, Alegiko *Errotan* afaltzen gelditu zenean. Orduak aurrera zijoazten. Gaua ere bai trago ta berriketa artean, eta goizeko ordu biak aldean, beren etxera bidea artu zuten.

Ormaetxea bakarrik zijoan, eta ontan, Azari-zuloa deritzan parajera eltzean, arran edo zintzarri-otsa eta gero eta biziagoa entzuten asi zan –lurpeko mitologi aztarrenen bat ote?–.

Aren ustegabeko arridura, atzetik bi idi gorri beren zintzarriak astinduz ondoren zetoziola ikusirik!

Bere ustegabeko bide-lagun aien oin-otsa eta zintzarri-zarata etengabe-koa entzunaz, etzizaion motza egin bidealdia *Agiraingo* atea jo zuen arte, orrekin batera bat-batean zintzarri-soiñu beldurgarria ixildu eta idi gorri pareta desagertu bai zen²⁴.

BI IDI GORRI

Bedaioiko gizon bat, Jose Ramon deritzana, ba zetorren Nafarroatik bere asto zamatuakin, eta usterik gutxienean, jartzen zaizkio aurrekaldean bi idi

23. Gaintzan (Araitz Arana): Agustín Askarai Arsuaga, 56 urte. *Ostokaitz* baserria. 1984ko. abuztuaren 20.

24. Amezketan (Ugarte auzoa): Manuel Karrera Ormaetxea, 79 urte. *Errota Zarra* baserria. 1981ko. ekainaren 23.

gorri beren zintzarriak joaz. Ori ikustean, gizona aztoratu zen eta eldu zion aberearen isatsari ta onek gurutzea beti berekin bai du, bat-batean ixildu zen zintzarri otsa eta bi idi gorriak ezkutatu. Astoaren berezko sorgiñ-almenari esker gizonak bizia salbatu zuen²⁵.

25. Amezketan: Juana Agirrezabala Artola, 67 urte. *EzkoIgorro* baserria. 1988ko. ekainaren 8.

Sugarra ikusten mugimenduan

Ortarako erriak izendatutako gizonak, Urte Zar egunez, Betelu eta Araitz Baillarako etxeetako tximiniak ikustatzen dituzte.

Urte baten Arribako errian bildu ziren aipatutako lan ortan ardura zutenak, eta aietako bi, gauez Azkaratera zetozela, batek sugarra ikusten zuen zeruan batetik bestera mugitzen, eta onela esan zion bere lagunari: «Ala Jainkoa! Sugarra ikusten alduk?» Eta besteak erantzun: «Ez, ez diat ikusten»²⁶.

26. Azkaraten: Ramon Otamendi Goikoetxea, 79 urte. *Mokoroa* baserria. 1988ko. abenduaren 26.

Deabruaren agerpenak

IRULE BATI

Arabian, Ullibarri Aranako biztanle zen Juan de Simon, izen bereko etxean bizi zen, urte batzuk geroago aren suia Nikolas Lopez de Ziordia bizi izan zenean bertan. Gizon au gogora datorkit gizaki burutsu eta atsegiña bezela. Arotza zen eta bere lanari buruz badut idatzirik nere liburu baten idazlan bat.

Orra bada, aipaturiko Juan de Simonen aita, izenaren berri ez dakilla dio Nikolasek, bere etxean iruten aritzen zan, gabaz, kriseilluaren olio naiz gas-argitan, eta ara nun batere uste gabe, aurrekaldean jartzen zaion gizon bat oso aundia eta buztan luzeduna. Mamutzar au batetan desagertu zen, eta itzik esan gabe.

Arabar irulea zearo izaturik, lanari utzi eta bere gelan ezkutatu zan babes eta pake billa²⁷.

ANDRE GAIXO BATI

Nere berriemaillearen amona, Nikolasa Antonia Ustoa, *Etxetxo* baserrian bizi zan, gero *Joangonea* izenekora pasa bazan ere. Bi baserri aukeraste-gin arkitzen dire.

Nikolasa Antonia *Etxetxon* gaixorik, oaldetik zegoen, eta Jose Maria apaiza jaunari esan omen zion meza bat atera bear ziola bere izenean.

Apaizaren baiezko erantzuna entzunik, Nikolasa Antoniak eskua burko azpian sartu eta dirua ateratzeko kiñua egin zuen. Diru ura *Napoleona* izeneko omen zan, emeretzi errearen baliokoa, eta mezaren ordain-bearra berriz lau pezeta edo amasei errealekoa.

27. Ullibarri-Aranan (Valle Arana): Petra Beltrán de Heredia Sagasti, 79 urte. 1975ko. otsailaren 20.

Nikolasa Antoniak esku utsa apaizari luzatu omen zion, eta apaiza ixil-ixilik gelditu. Ordun Nikolasak adierazi omen zion: «Gaiñerako sobrate oiekin errespontsoak atera bitza».

Beste egun baten, gaixoak onela esan omen zion Jose Maria apaiza jaunari: «Bart gauean infernukoak azaldu zaizkit beren adar eta guzti».

Apaizak ordun galdetu omen zion: «Infernutar oiek, beraz, adardunak ditun?» «Bai jauna, bai; nai badu sinistatu eta nai ez badu ez, baiña Jainkoak ez dezala nai beorrek oiek ikustea»²⁸.

28. Berastegin: Amada Etxeberria Matxinea, 80 urte. *Borda Txuri* baserria. 1982ko. iraillaren 20.

Deabruarekin ar-emanak

IKAZKIN BATI LAGUNDU

Lakuntzako ikazkin bat, Aralarreko mendietan txondarrean aritzen zena, egun baten errira jetxi zan, jan-billa. Gorakoan, mendira bidean, mandoa bi lasto-pardo, jana eta zaragi bat ardo erdian zeramazkila, zama okertzen zitzaion bein da berriz. Au ikusirik, ikazkiñak birao eta deiadar artean onela esan zuen: «Orrelakoetan laguntzera ez da ez sorgiñik eta ez inperukorik etortzen. Baldin badire, azaldu ditezela!»

Au esanaz batean ara non azaldu zitzaion gizon indartsu bat adar gorrikin eta zama eusteari ekin, beti ixilik, txabolaraiño lagunduaz. Etxolara eldu zira-larik, ikazkiñari izkutatu egin zitzaion gizon adarduna. Lakuntzako ikazkiña andik bi egunera il zen²⁹.

IKAZKIN BATEKIN

Lazkaon jakitea izan nuenez, Ataungo Araoz mendian ikazkin talde bat txondarrean ari omen zen, beraiekin arrantxeroa beti zutelarik, beraien sukaldeko lanataz arduratzen zena.

Arrantxero onek goizean goiz talo-erretzeari ekiten zion, eta txondarrera urbiltzen zan lankideei esanaz gosaria prest zegoela. Baiña txabolarara urbiltzean, talorik etzuten arkitzen, eta orrela bein da berriz, egun batean eta bestean, arrantxero batekin ala besteekin berdin gertatzen zen.

Gauzak onela, goiz baten errantxeroa izkutatu egin zen, eta nun ikusten duen deabru bat zela lapurra. Itsumustuko gertakizun ontan, ikazkiña etzan atzera begira gelditu, talo-burni goritua artu eta berarekin deabruari sabela aldenik-alde pasa zion³⁰.

29. Gaintzan (Araitz Arana): Ramon Askarai Arsuaga, 55 urte. *Matxindo* baserria. 1984ko. urtarrillaren 11.

30. Lazkaon: Segunda Barandiaran Urrestarazu, 60 urte. (Ataungo Aizearte auzoko *Beama* baserrian jaioa). 1984ko. uztaillaren 14.

AGERTU ZITZAION ETA AREN URTEAK JAKIN

Gauza itxuragabe batek zubia igarotzen zuen alde batetik bestera, egu-nero, gabaz eta ordu berean.

Inguruetako jende guziaz bildurtuta zegoen gauza itxuragabe ura ikusirik, eta emakume bat izan zen adierazi zuena berak jakingo zuela gertakizunaren berri. Ordun, emakume oni esan zioten, agindua betetzen bazuen ongi ordaindua izango zela.

Bere ordu jakiñean emakumea zubira joan zen eta zubi erdian larrugorri jarri, zutik eta burua atzera boteaz anka tartetik aurpegia buruko ille luzeak zintziilik zituela agertuz.

Bulto itxusia eldu zen, beti bezela, eta bere aurrean gauza ura ikusirik, onela esan zuen: «Infernuko deabrue nauk, iruetaneun urte bazetit ola nabillera, baiña olakorik oraindik ez diat ikusi».

Etsaia bildurturik itzuli zen eta alde egin, betiko izkutatz³¹.

IRU APAIZEN MAIXU

Gertaera au leen-irakaspeneren oitura barnean arkitzen da.

Joantagabriel (Joan Gabriel, entzutea izan dudanez) izenarekin ezagutua, apaiz egin zen, eta beste bi apaiz lagun zituen. Iru apaiz auek pentsatu zuten inpernuko gaiak ere jakin bear zituztela, beti *Joantagabriel* buru zutela.

Ontarako deabru bat leize-zulora joaten zan sorgiñekin mintzatzera eta *Joantagabriel* urbildu zen etsai arengana eta galde egin zion zenbat dirutan estudiua emango zien iru apaizeri.

Deabruak erantzun zion dirurik etzuela bear; apaiz bat beretzako izatekotan nai zutena erakutsiko zietela. *Joantagabrielek* baiezkkoa eman ez erantzun zuen, konforme zirela esanaz.

Estudio lekua leize-zuloa zuten, eta bertara iristeko, bidea egiteko, deabruak makil bat emango zion *Joantagabrieli*, eta makil onekin leize-zuloaren ixkiñan jotzen zutenean, bide ederra jartzen zitzaion barnera sartzeko. (Makillaren sorgin-gaitasunaz, eta Cantabriako «anjanas»ei buruz, Caro Baroja mintzo zaigu³².

31. Leitzan: Kosme Zabaleta Zestau, 76 urte. *Joantxenea Beia* etxea. 1978ko. urtarrillaren 19.

Kontakizun onek gogorazten dit bein batetan Resurreccion Maria de Azkuek jasotako *La edad del diablo*. Ikus Aip. Lan. 343-344 orr. Ala nola A. Donostia dela medio ezagutzen dudana *Una bruja más lista que el diablo*. Ikus. Aip. lan. 139 orr.

32. Julio Caro Baroja: *Mitos vascos y mitos sobre los vascos*. Txertoa, 40-41 orr.



Deabruarekin arremanetan zeudela, apaizek jakinaal izan zuten Aitasantua engañatua zeukala etsai batek. *Joantagabrielek* galdetu zion bere maixu deabruari bizkar gaiñean zenbat denboran eramango zuen Erromara. Ordun beste etsai bat etorri zitzaion esanaz: «Ordubete aruntz eta orduerdi bat onuntza», eta *Joantagabrielek* onela erantzun zion: «I ez aiz neretzat mando ona». Beste deabru bateri galdetu zion: «Ik zenbat denboran eramango nauk?» Onek esan zion: «Nik an da emen». Au entzunik, apaizak erantzun zion: «I aiz neretzat mando ona».

Apaizaren oitura Jesus!, Jesus! bein da berriz esatekoa zan, eta etsaiak au jakiñik onela tentatzen zun: «Esan zak len esaten uan ori». Baiña apaizaren erantzuna beti au izaten zan: «Arre, demonio!, arre, demonio!», *Joantagabrielek* bai-baizekien Jesus itza esaten bazuen deabruak itxasora botako zuela.

Erromara iritxi zirenean, apaizak Aitasantuaren etxeko atea jo zuen eta serbitzari bat atera zitzaion. Apaizak Aitasantuarekin egoteko naia agertu zionean, serbitzariak esan zion: «Itxoin egin bearko dezu, bazkaltzen ari dira ta». Ez daukat Aitasantua dagoen lekura joan bearrik –erantzun zion apaizak–, eta zinta bedeinkatu bat eman zion serbitzariari, adieraziaz: «Zinta onekin Aitasantua dagon maiaren luzera eta zabalera neurtu, gurutzea egñiaz». Aitasantuaren bazkaldarrak, deabrua zenak, au ikusi zuenean, altxa eta leiotikan barrena aldegin zuen. Eta orrela, Aitasantua bakarrik gelditu zan, bere ondoko etsairik gabe³³.

Emen ageri zaigu, nola deabrua eta Jainko-ezaugarri bat –adibidez, gurutzea–, ezin daitezkeela uztartu.

Apaizak leize-zuloan beren estudioak bukatu zituzten eta *Joantagabrielek* bazekien nola joango ziren ondorengo gauzak.

Kanpoan eguraldi ederra zegoen batean deabruari adierazi zion leize-zulotik aterako zirela. Ontarako, iru apaizek erabaki zuten zein aterako zen aurrena eta zein azkena. Erabaki zuten baita ere irteeran zer esan bear zuten.

Tratua zen bezala deabruak aurrenekoari galdetu zion: «Zuetako zeiniek geratu bearko du neretzat?», eta apaizak erantzun: «Atzekoari galdetu akiok». Etsaiak bigarren apaizari galdera bera egin zion, eta erantzuna ere berdiña izan zuen: «Atzekoari galdetu akiok».

Azkeneko apaiza, *Joantagabriel* ateratzen asi zenean, etsaiak galdera onela egin zion: «Zein da bada neretzako?», eta *Joantagabrielek* erantzun: «Atzeko ori gelditu zak». Atzeko au erraiñue zen eta *Joantagabriel* erraiñurik gabe gelditu zan; meza ematen zuenean, mezerdikoan bakarrik erraiñua iza-

33. Emen aurkitu dugu deabruaren eta Jainkoaren ikurren baten arteko bateraezintasuna, esate baterako gurutzea.

ten zuen. *Joantagabrielek* bazekien erraiñua –anima, zenbait mitologi alorretan– bear-bearrezkoa zuela salbatzeko, eta sakristauari agindu zion ura tiroz botatzeko, Gure Jauna altxatzen zuenean, zuzen apuntatuaz. Aurreneko esanean sakristaua etzan ausartu; baiña bigarreanean, esan bezela bota zion tiroa. *Joantagabriel* atzeraka erori zen Jauna eskuetan zuela, eta bertan zerraldo gelditu zen.

Baiña, aurrez, sakristaua jakiñik zegoen zer egin bear zuan apaiza il ondoren. *Joantagabrielen* borondatea bete bear zuen, eta aren naia auxe zan: apaizaren gorputzetik biotza atera bear zuen eta bere baratzako intxauro arbola baten gaiñean ezarri.

Argiezkilletik illunezkille jo bitartean, beleak biotza eramaten badu inperuan egongo nauk, eta neretzat errezorik ez egin; sapelatzak eramaten badu, purgatorioan izango nauk, eta mezak atera eta errezatu neretzat; usoak eramaten badu, berriz, zeruan arkituko nauk, ederki asko egongo nauk eta ez neri jaramonik egin, ez nere alde erregutu, errezo bearrik ez diat eta.

Belea biotzaren inguruan ibilli zen, baiño etzuen eraman; sapelatzare etorri zen biotzaren ondora, baiña etzuen ikutu; uso txuri batek ordeare etorri eta *Joantagabrielen* biotzare artu eta eraman zuen³⁴.

TXANBENAT (JAUN BENAT), DEABRUA ETA AITA SANTUA

Txanbenat praillea zan eta bere amaren etxean zegoen, au talo-erretzen ari zala.

Amak semea bazijoala ikusirik, onela mintzatu zitzaion: «Motel, nora uaa?», afaritako taloak erretzen ari nauk. Au entzunik semeak erantzun zion: «Bai, bai, erre; berealare etorriko naiz eta».

Txanbenatek deabru bati dei egin zion galdetuz zenbat denboran egingo zukean Erromako bidaia. Etsaiaren erantzuna au izan zan: «Bi minututan». «Ez aiz neretzako ona», esan zion *Txanbenatek*, beste deabru bati galdera berdiña egijñez, onek jakiñarazi zion minutu baten Erromatik joan-etorria egingo zukealare, baiña *Txanbenatek* oni ere berdin adierazi zion: «Ez aiz neretzat ona».

34. Uztegin (Araitz Arana): Jose Antonio Artola Gibelalde, 80 urte eta Jose Artola Saralegi, 45 urte. *Sorozabal* baserria. 1986 ko. otsaillaren 26.

Zenbait aldaketarekin, kontakizun onek Julien Vinson-en «El cura sin sombra» izen buruare daraman bertsioare gogorazi dit. Ikus *Euskalerraren alde* IV. Alea. 570-571 orr., alare nola «Atarrabio», R. M. Azkuerena. Aip. lan. 69-73 orr. Amaiera Jose Migel Barandiaran-i irakurtzen dizkiodan «Atarrabi, Atarrabio edo Ondarrabio eta Atxular», «Axular» delakoan oso antzekoalare da –*Obras Completas I*. 43-45 orr., edo Manuel Lekuonaren *Idaz-Lan Guztiak II* izeneko liburuan agertzen den «Axular apaizaren jakiñduriarena». Lekuonak somatu du Euskalerrri barruko zein kanpoko pertsonaia desberdinek duten mito bera dela. Jose Maria Satrustegik, 1973ko. urriaren 28an *Diario de Navarra* argitara emandako «La muerte del mago» artikuluan bein batetan, berak dion bezela, J. M. Barandiaran-i ildo beretik darraio.

Txanbenaten jakiñeko galderari, irugarren deabruak onela erantzun zion: «Emen orduko an, eta an orduko emen». «Bai, i aiz neretzat ona», esanez, *Txanbenat* aldiberean kapa jantzi eta etsaiaren gaiñean jarri zan, deadarkatuz: «Alzate diablo, vete a Roma!»

Erromara iritxi ziren ba eta *Txanbenatek* Aitasantuarenean atea jo zuen. Atezaiak galdetu zion ea zer nai zuen, eta *Txanbenatek* jakinarazi zion Aitasantuarekin egon nai zukeala. Atezaiak esan zionean eziñezko gauza zela ori, afaldar batekin maiean arkitzen zelako, bisitariak adierazi zion maiaren neurria artu besterik etzuela nai, eta au entzunik, atezaiaren baiezkoa lortu zuen. Ori besterik ez badezu, pasa zaite, esanaz *Txanbenat* urbildu zan Aitasantuarengana eta mai gaiñera bere bastoia bota zuen, luzetaka eta zabalka gurutzea egiñaz. Aldiberean afaldarra ezkutatu zan eta Aitasantuak igarri zion bere laguna deabrua zala.

Txanbenat etxera itzuli zenean, amak taloak erretzen jarraitzen zuen eta semearen kapa elurrez beteta ikusirik, galdetu zion: «Motel, nun ibilli aiz?» «Ai ama, ama, Jakako portuan elurra galanki ari du», erantzun zion *Txanbenatek*. Gero, amak bere semeari taloa eta esnea atera zizkion³⁵.

IGELTSERO BATI LANAK EGIN

Nafarroako Gaintza errian eliz-atzean kanposantua zuten, eta erriak batzarrean bilduz erabaki zun erritik kanpora ateratzea. Ontarako igeltsero batekin, Beteluko semea bera, ain zuzen, aremanetan asi ziran, eta eskulangille onek bearrezko tresnak artu eta bere seme gazte baten laguntzarekin lanari ekin zion, eta orma jasotzen asi zen.

Semea aurretik bidaliz, igeltseroa, eguna lanean igaro ondoren eta arras nekaturik gabaz etxera zijoala, bururatu zitzaion diru aldetik tratu txarra egin zuela eta irabazi bearrean galduan aterako zala. Gauzak onela, gau batean neska gazte baten itxurako bat, igeltseroari bidera atera zitzaion, zer zebillen galdetuz. Igeltseroak bere gertakizuna jakinarazi zion neska arrotzari, eta onek erantzun urrengo eguneko illuntzean joango zela liburu batekin lantokira eta liburu ontan igeltseroak bere odolez izenpetzen bazuen, neska-etsaiaren lagunak, etsaiak berak ere, lana azkar eta ondo bere orde zingotuz. Adierazi zioten baita ere firma onen bidez igeltseroa inpernutarrekin elkarturik gelditzen zela.

35. Renterian (Zamalbide auzoan): Antonia Auzmendi Zuloaga, 74 urte. eta Salvador larzabal Berra, 87 urte. *Lubeltza Berri* baserria. 1989ko. apirilaren 4. *Txanbenat* izenari leentasuna eman diot, au eman bait zidaten aipatutako erreferentzian.

Zenbait aldaketarekin ezagutzen ditut antzeko kontakizunak, liburu onetan *Maestro de tres sacerdotes* izenburu pean agertzen dena auen artean sartzen dudalarik. Funtsean, Azkueren liburuan irakurri aal dugun *Atarrabio* kontakizunaren bigarren zatiaren berdina da. Aip. lan. 71-73 orr.

Igeltseroak bota zuen bere odolezko firma. Etxera lasai joan zen; baiña bereala kezkatzen asi zan arima saldu zuela pentsatuz, eta Beteluko apaizarena joan zen, zer gertatzen zitzaion esanez.

Lagunduko ziola erantzun zion apaizak, eta galdetu zion etxean urtebete baiño geiagoko oillarrik ba ote zedukan, orduak markatzen dakina, goizeko ordubitatik orduero eguna zabaldu arte kantatzen duena, ordu txikietan kukurruku joaz.

Igeltseroak erantzun zion apaizari bi urteko oillar zuria, ongi kantatzen zuena ba-zeukala. Au entzunik, apaizak esan zion oillar ori bedeinkatzera eramateko mezetarakoan, eta bedeinkatu ondoren, sakristian utzi zuten.

Illundu zuenean, apaiza eta igeltseroa, oillarra zaku txiki baten izkutatuz, kanposantu inguruko sasitarte baten gorde ziren.

Kanposantuko orma jasotzera etsai langille pilla bildu zen, txingurri pilloa baiño ugariago ziren eta denak *Mikolas* izenekoak ziren.

Batak besteari bere lanean arriak emanaz, onela mintzatzen ziren: *Artu, Mikolas; bota, Mikolas; jarri, Mikolas; eldu, Mikolas.*

Onela etsaiak lanean ari zirela, apaizak bere garaian oillarra saskitik atera zuen eta onek bai kukurruku kantatu ere. Au entzunik etsaiak lanari utzi zioten eta elkarri begira jarri ziren. Bigarren kukurrukuarekin inpernuoak bildurtu egin ziren, eta oillarraren irugarren ekiñaldiarekin etsai guztik sugarretan aldegin zuten. Ordun apaizak igeltseroari esan zion inpernuo langille aiek etzutela jarraituko kanposantuko orma jasotzen, eta lana amaitu gabe gelditzen zela. Ori entzunik, igeltseroak pozez beterik, oillarra artu eta bere etxera itzuli zen³⁶.

AZELAINGO ZUBIA EZIN BUKATURIK UZTEN DUTE

Argin bat asi zen Azelaingo erreka aundia igarotzeko zubia egiten. (Au Ori ibaia da. Azelain berriz, Erdi Aroko jauregia zen, eta azkeneko biztanleak Larreatarrak izan ziren).

Baiña argiñaren ekintza urak beti urratzen zuen. Ala, gizona amorrazi zen eta esan zuan: «Zubi au eitten ez ote dittea lagunduko infernuko demonioak benik!»

Inpernuko demonioa bereala azaldu zitzaion, esanez: «Zure animaren truke egiñen dizut oillarrak kukurruku jo baiño leen». Au entzunik, argiñaren erantzuna onelakoa izan zen: «Bai, konforme, oillarrak kukurruku jo baiño leenago bukatzen baduzue zubiya, nere anima inpernuko demonioarentzat».

36. Gaintzan (Araitz Arana): Ramon Askarai Arsuaga, 55 urte. *Matxindo* baserria. 1984ko. urtarrillaren 12.

Amalau milla *Mikolas* etorri ziren inpernutik zubigintzara. (Infernuan izenik gutxienekoak oietzek omen ziren, *Mikolas*). Errenterin entzun nuenez berriz, deabru auen izena *Domingo* omen zen, eta onela deituak infernuan gutxienak ziran³⁷.

Lanean asterakoan onela esan omen zuten etsai aiek: «Eskutik eskura Larrundik arrie, laister egiñen diagu Azelaingo zubie».

Tximista izugarrian lanean asi ziran, eta zubia azkar azaltzen asi zan. Au ikusirik, argiña ikaratu zen, pentsatuz zubia bukatuko zutela ollarrak jo baiño len, eta bere anima galdu. Gauzak onela, andre batek argiñari esan zion: Oillarrari sar ezaiozu gatz pixka bat ipurditik eta bereala joko du kukurruku. Oillarrari sartu zion ba gatza, andreak esan bezela, eta bai azkar asko kukurruku jo ere.

Kukurrukua entzun bezain laister, *Mikolas* guztiek bereartan zubia utzi eta anka egin zuten.

Bukatzeko arri bat falta zitzaion zubiari, eta gaur ere oraindik alaxe dago. Egunez argiñek jartzen zuten arri ura; baiña gaubez beti kendu egiten zieten. (Egun, Azelaingo zubia desagertua da)³⁸.

DEABRUA NOLA UXATU

Gaubean noiz edo noiz ollarrak kukurruku jotzen badu, gatz ale batzuek surtara bota eta kredo bat errezatu. Onela uxatzen dira ingurutako etsai guztiak³⁹.

37. Renterian (Zamalbide auzoan): Antonia Auzmendi Zuloaga, 74 urte. *Lubeltza Berri* base-
rria. 1989ko. apillaren 9.

38. Leitzan: Mikaela Labaien Lasarte, 74 urte. *Astaitzaga* baserria. 1988ko. azaroaren 14. Nolabaiteko aldatetekin, bat baiño geiago arduratu da kontakizun onetaz. Pasaeran bada ere, eta beste kontakizunei sarrera gisa, *Azelain* zubiaren bizitza eta mirariak aipatu ditu Joakin Larreta Arza-ek. Ikus Joaquin Larreta y Arzac: «Alonsotegiko Zubia», *Euskal-Erria* lanean, V. Alea (1882ko. urtarrilletik martxora). 129-132 orr. Aipatutako kontakizunaren antzekoan, Euskal Errit-
tik kanpo, gogoratuko dut Lérez-ko zubia (Pontevedra). Xosé Ramón Mariño Ferro: *Satán, sus
siervas las brujas y la religión del mal. Xerais de Galicia*, S. A. Argit. 1984. 153 or.

39. Renterian (Zamalbide auzoa): Antonia Auzmendi Zuloaga, 74 urte. *Lubeltza Berri* base-
rria. 1989ko. apirillaren 19.

Zigorra. Arima erratua

ESKRIBAU BAT

Naparroako eskribau bat beti kapaz jantzirik ibiltzen omen zen. Legegi-zona gaixotu eta iltzeko zorian zegoela, onela esan zuen: «Kendu ezazue kapa ori nere bistatik, ori jantzita arruinatu ditut Betelu eta Araitz eta Larraun ibarreko erriek!»

Eskribaua il zen eta bere buruari esan edo galdetu zion: «Nora joango nauk? Zerura ezta pentsatu ere; purgatoriora ere ezin naiz joan, inpernura joan bearko diat».

Eskuakin inpernuko atea jo zuen bein da berriz, leiatilla ireki zen eta etsai baten aurpegia azaldu. Onek eskribaua ikusirik, bereala leiatilla itxi egin zuen eta beste deabruei oiuka esan: «Atozte, atozte, ateari eustera, eskribaua emen diagu eta ori emen sartzen baldin badek, denak galduak gaituk!»

Eskribaua kanpoan gelditu zen, eta arrezkeroz zaldi gaiñean aidean ibiltzen da, zaldi perra-soiñuak gabaz entzuten direlarik⁴⁰.

KAPA BEDEINKATUA KENTZEN DIOTE INPERNURA JOAN AAL ZEDIN

Etxe batean gizon bat il zen eta kapa bedeinkatuakin jantzi zuten. Gero, kapa sutan zuela aidean eta gabaz batetik bestera zebillen. Alako baten bere etxera itzuli zen kapa kendu zezaiotela eskatuz, inpernuan sartzea kapak galerazten ziola eta.

Etxekoek kapa eskuz kentzera etziren ausartu eta atxurrez kendu zioten. Ipui onen bidez jakin aal izan dugu, arima erratua izatea inpernua bera baiño zigor aundiagoa dela⁴¹.

40. Betelun: Jose Artola Goikoetxea, 73 urte. *Joangonea* etxea. 1983ko. abenduaren 8.

41. Uztegin (Araitz Arana): Jose Antonio Artola Gibelalde, 83 urte, eta Jose Artola Saralegui, 48 urte. *Sorozabal* baserria. 1989ko. urtarrillaren 29.

MUGARRIA IXILKA TOKIZ ALDATZEAGATIK

Araitz ibarrean, Intza izeneko urixkan, artzai batek bere txabolan gaua pasatzen zuen.

Gau aietako batzuetan berealdiko otsak eta karraxiak entzuten zituen. Artzaia ikaratu egiten zen eta egun baten apaizarengana joan zen zer gertatzen zitzaion adieraztera.

Apaizak esan zion beste munduko anima bat sufritzen zegoena izan zitekeela eta galdetzeko zer nai zuen. Artzaiak apaizaren esana egin zuen eta beste mundukoak onela erantzun zion: «Biar gaueko amabietan joan adi alako lekutara, atxurra artuta». Artzaiak nai ori bete zuen, eta gaberdian agertu zitzaion ildakoa, agindu au adieraziz: «Atera zak mugarri au; emen zuloa egin zak eta sar zak bertan arri ori». Artzaiak au egin ondoren, ildakoak onela esan zion: «Orain lasai gelditzen nauk, zeren inpernuak artuko bai natxeok, oraindano ez bait ninduen ametitzen»⁴².

IXILLEAN MUGARRIE ALDATZEAGATIK

Gizon batek mugarria ixillean kenduz, lekuz aldatu egin zuen, eta ill ondoren mugarri ura bizkarrean zeramala lurra kendutako nagusiarengana joan zen, otsegiñez: «Mugarri, mugarri, nere animen galgarri!»

Au entzunik, lurraren jabeak lapurrari onela esan zion: «Zer dok, zer dok?», eta ildakoak erantzun: «Mugarrie emen dok, mugarrie emen dok», eta au adieraziz batera, mugarria bere lekuan sartuta utzi zuen, lapurretan egingakoa itzuli egin zuen⁴³.

MUGARRIE IXILLEAN TOKIZ ALDATZEAGATIK

Gizon batek mugarria ixillean tokiz aldatu zuen, eta il ondoren bere zama astuna gau eta egun, atsedetik gabe, bizkarrean eramaten zuen». «Au karga, au karga!», oi u egiñaz, bein da berriz.

Au entzunik, eta gertatua jakin, bere lagun batek onela esan zion: «Mugarria artutako lekuan utzi zak. Bakoitzak berea». Lagunaren esana betetzearekin bat-batean, gizonaren bizkarra arindu omen zan⁴⁴.

42 Betelun: Aurreko berriemantzaillea.

43. Azpirotzen (Larraun Arana): Bernardo Argiñarena Soroeta, 64 urte. *Iriarte* etxea. 1982ko. abuztuaren 15.

Barandiaran-en eskutik ezagutu dugu Atan inguruan entzundako antzeko kontakizuna, O. C., I. 174 orr. Gauza berdintsua adierazi digu M. Lekuonak, gure geografiko zeatzik finkatu gabe: *Idaz-Lan Guztiak*, II. 122 orr.

44. Arriben (Araitz Arana): Jose Otermin Gibelalde, 64 urte. *Gastesi Txikia* etxea. 1985ko. iraillaren 12.

Kontakizun au ezer gutxi aldatzen da J. M. Barandiaranek Betelun kokatzen duenarekin alderatuz gero. Ikus O. C., I. 174 orr.

MUGARRIA IXILLEAN LEKUZ ALDATZEAGATIK

Aralarko mendietan, gauerdiko amabietan, artzaiek taloburnia aidean eta sutan ikusten zuten, aldiberean antsi bat entzunaz. Denak ikaraturik geldituz.

Gau baten erria bildu zen eta iñork etzuen mendira joan nai, aurpegi ematera. Baiña artzai aien lagun batek, bera ere artzaia, zerbait moskorturik arkitzen zenak, bere lankideei onela esan zien: «Iñor etzerate ausartzen joatera; ni joango naiz». Esan eta egin. Joan zan mendira, eta beti bezela, gabeko amabietan taloburnia aidean azaldu zan. Au ikusirik, artzaiak onela esan zion: «Zer bear dek? Onez baldin badator mintza adi; eta txarrez badator alde egintzak!». Ordun, izkutuko gizonak onela deadarka esan zuen: «Au karga, au karga!»

«Uztak ba», artzaiak erantzun.
«Egidak mesede bat», izkutukoak.
«Egingo diat ba», artzaiak.
«Ar ezak atxur bat», izkutukoak.

Artzaiak atxurra tzabolatik artu eta taloburnia sutan agirian zeraman izkutuko gizonarekin, Intzako Joangoneko soroa joan ziren. Emen, artzaiak au entzun aal izan zun: «Atera zak mugarri ori», eta aldiberean gizon bat kapaz jantzia eta taloburnia sutan zeramala agertu zitzaion. Gizon onek zazpi oin neurtu zitun aipatutako sorotik asita *Zamargiñen* sorora, eta artzaiari esan zion: «Mugarri ori sar zak emen». Au egin ondoren, artzaiari, kapadunak onela eraso zion: «Leen ez nintzen ez zerurako eta ez inpernurako, orain ordea, inpernurako naiz. Atxur orrekin kendu idak kapa au». Kapa eskuz ikutu gabe, sutan aidez joan zen eta geiago ez zen ezer entzun eta ez taloburnirik ikusi⁴⁵.

MUGARRIA IXILKA ALDATZEAGATIK

Atallon gizon bat gaixotu zen eta apaizari aitortu zion alako tokitik mugarri bat nola aldatu zuen, iñori esan gabe, ixillean. Gauza bera bere andreari esan ondoren, oni bere naia agertu zion, adieraziaz mugarria bear zan lekura eraman eta tinkaturik uzteko.

Gaixoa il zan eta andreari bere senar zanaren borondatea betetzea aztu. Andrea elizatik etxera itzuli zen egun batean, sukaldeko ate aurrean, sartzeko oztopo egiñaz, egur sorta bat zutik arkitu zuen, bezperan prestatutako egur-sorta, etxe ondoan utzia.

Au onela ikusirik, emakumea bildurtu zan eta zer gerta zitzaion apaizari jakiñarazi zion. Ordun apaizak gogorazi zion senar zanaren naia bete bear zuela, ots, mugarria bere betiko lekura eraman eta an uzteko⁴⁶.

45. Uztegin (Araitz Arana): Margarita Artola Echarri, 55 urte. *Sorozabal* baserria. 1989ko. urtarrillaren 29.

46. Tolosan: Martín Balda Goikoetxea, 80 urte (Naparroako Gaintzan jaioa). 1982ko iraillaren 30.

JABEARI ITZULI BEARRA

Leitzan, bere etxera zijoan bati beste bat arbolatik zintzilik agertu omen zitzaion. Au onela, oiñezkoak galdetu omen zion: «Zer aiaiz or zintzilik?» «Eun karga ikatz ostu nituen eta bere jabeari itzuli bearrean arkitzen naiz, munduan zear bueltaka ibiltzeari utzi eta zeruan sar nadin».

«Orren bearrean ba ao, *Ola Zarrean* sartu itzak»⁴⁷.

MATEO TXISTU

Aize-erauntsiak iskribau edo errotariren baten eriotza iragartzen omendu, eta aldiberean eiztari erratuaren mitozko agerpena aurkezten digularik, oraingo ontan guri dagokigunez. An dabilta eiztaria ta txakurrak, dasaigu G. Bährek⁴⁸.

Mateo Txisturen edeskizuna era askotara ezagun eta kontatua izan da, zertxo batzuetan zerbait aldatzen dutelarik. Literatur eduki aberasgarri batean, Juan Iturralde y Suitek zabalkiro edesturik ematen digu kontatera au *Los perros de Martín Abade* izenpean, eta berau Udala-mendin kokaturik⁴⁹. Oar dezadan baita ere, Julio Caro Barojak kontakizun oni buruz egiñiko azter-lana, *Eiztari Beltza* deituraz bere liburu *Mitos vascos y mitos sobre los vascos-en*⁵⁰.

Apaiz bat, eiztari amorratua bera, beiñola meza ematen ari zela alako baten bere erbi-zakurren zaunkaots larriak adierazi zioten erbi bat zekarkio-tela eliz-ingurura. Ori zela ta, apaizak meza amaitzeke bertan utzi eta anka egin zuen. Sakristian zeukan eskupeta artu eta bere oiñ-arrastoak eliz-ata-dian utzirik, an ziak erbiaren atzetik, bere txakurren ondotik.

Bertatik, apaiz ura, *Mateo Txistu* izenez ezagutzen duguna, or dabil gau ta egun gelditzeke eta atsedean gabe, aidean. Berorren or egotea nabaitzen degu aize-erauntsi zakarrean eta eiztariaren txistu-otsean⁵¹.

PISTI JOAN

Ipui onen berezitasuna bere izenean eta atsedenaldirioak ditun bere ibi-llera berezian arkitzen da.

47. Leitzan: Benito Astibia Baraibar, 69 urte. *Aritz-Atari* etxea. 1972ko. martxoaren 25.

48. Gerhard Bähr: «Alrededor de la Mitología vasca». *RIEV XXII* Zenbakia-. 1931koa, 120 orr.

49. Juan Iturralde y Suit: *Euskalerría*, IV Zen. (1881ko. irailletik abendura). 97-102 orr.

50. Julio Caro Baroja: «Eiztari-beltza (El cazador negro)», *Mitos vascos y mitos sobre los vascos* liburuan. *Txertoa* Argi. 1985. 55-64 orr.

51. Tolosan (Aldaba-Txiki auzoan): Fernando Aristi Garmendia, 75 urte, eta Jose Aristi Garmendia, 73 urte. *Isasti Goikoa* baserria. 1988ko. azaroaren 20.

Pisti Joan deritzan ipuia *Mateo Txisturenaren* oso antzekoa degu.

Pisti Joan apaiza zen, eta eguneroko meza ematen ari zela erbia nabaitu zuen. Meza bere artan utzi, sakristitik eskopeta artu eta zakurrarekin erbiaren atzetik joan zen.

Geroztik aidean dabil, iia muturrean bakarrik atsedean artzen duelarik, landara orren burualdea erreta utziz⁵².

52. Renterian (Zamalbide auzoa): Antonia Auzmendi Zuloaga, 74 urte, eta Salbador Iarzal Berra, 87 urte. *Lubeltza Berr*i baserria. 1989ko. apirilaren 9.



Zigorra

DIRU-GOSEAGATIK

Jesukristo eta bere bi lagun mendian barrena zijoazten, kutxa bat diruz betea arkitu zutenean.

Bi lagunak kutxako dirua artu nai izan zuten; baiña Jesukristok onela esan zien: «Diru ori utzi or, dirua gizon galtzaillea da eta». Au entzunik, bi gizonak, naigabe aundiz, baiña aurrera jarraitu zuten, Jesukristori obeituaz.

Gizon oien atzetik bereala beste iru zetozten, eta auek ere ikusi zuten kutxa diruz betea. Ikusi eta baita dirua artu eta elkarren artean banatzea pentsatu ere. Ontan, aietako bat janari billa irten zan. Jakia erosi zuen onek pentsatu zuen aberastasun guztiarekin bera gelditzea, jakia pozoinduz eta orrela beste biak illaz.

Bestalde, kutxa-dirua zeukaten beste bieri ere bururatu zitzairen irugarren laguna iltzea eta orrela diru guzia bien artean banatzea. Onela, jaki-eroslea urbildu zitzaienean tiroz il zuten. Gero bi iltzaille auek jateari ekin zioten, pozoitutako jana jateari, alegia, orrela beren eriotza arkituz.

Geroztik, Jesukristo bere bi lagunekin kutxa aurretik igarotzean, iru gizon illak ikusi zituzten eta arras poztu beren buruak salbu ikustean, kutxako dirua artu ez zutelako, Jesukristoren aolku onari amor emanetz⁵³.

MUGARRIAK BEAR EZ BEZELA ALDATZEAGATIK

Naparroako Gaintza eta Uztegi urixkak eztabaidatan zebiltzen. Uztegi Gaintzari *Mailloako* lurrak kendu nairik, eta bai kendu ere.

53. Tolosan (San Blas auzoan): Joakin Murua Aiestaran, 55 urte. *Zumarain* baserria. 1988ko urriaren 9.

Il zen eztabaida onetan buru ibilli zen letradura eta bere elizkizunak egite-rakoan, apaiza mezerdira eldu zenean nun azaltzen den sutan, aldare aurrean denen bistan eta apaizari esan: «Neri eliz-funtziorik ez egin. Inper-nuan arkitzen naiz ta zuen errezoak ez dute iristen sua indartu besterik». Au entzunik, apaiza naigabea egin eta lurrera erori zen.

Inpernuan zegon gizon arek Azkarateko apaiza laguna zuen, eta lekuko izan zen Uztegi eta Gaintzako alkateak *Mailloara* joan zirenean mugarriak aldatzera.

Astun-alde izena daraman lekura eldu arte etzuten bere lanean oztoporik izan. Emen arkitu zuten mugarri kurutzeatu bat eta laiñoa onela mintza zitzaian: «Astun-alde, Astun-alde, Gaintzako delá, Gaintzako delá. Beste mugarrik aldatu dituzute baiñan au aldatzeko ez duzute abilitadestik. Sasile-traduaren etxean ez da suerte onik izango»⁵⁴.

Mugarri gurutzetuari kaso egin gabe, lurak Uztegiarentzat gelditu ziren eta aldaketa onetan ardura izan zuen gizonak inpernuan jarraitzen du⁵⁵.

MUGARRIA BEAR EZ BEZELA KENTZEAGATIK

Joantagabriel apaizak artaldea zuen, eta artalde onentzat zaintzaille bat zeukan. Zaintzaille onen oituratako bat besteren sailletan sartzea zen, eta orrelakoetan okasio-biderik edo eztabaidarik ez izatearren, mugarri bat bere lekutik atera eta leize zulora bota zuen. Gero apaizari onela zion: «Ez zaituzte geiago salatuko, ez baituko». Ordun apaizak galdetu zion: «Zer egin duk ba?» «Mugarrie atera eta leizean bera bota», erantzun zuen artalde-zaiak.

Apaizak au jakin zuenean, ardi-zaiari adierazi zion mugarria bere lekuan ezartzen ez bazuen, etzela salbatuko, zerura etzala joango. Txaregilleak esan zion ordun arria berriz eskuratu ezin zuela, eta apaizak esan makil bat emango ziola. Makil onekin leizearen goiko ertza jo bear zuela eta bereala bide ederra zabalduko zitzaiola mugarrie zegoen tokiraiño⁵⁶. Mugarrie dagon toki ortan gauza eder asko ikusiko dituk, adierazten zion apaizak, baiña mugarrie bakarrik ikutu bestela iartuta geratuko aiz ta.

Artalde-zaiak mugarrie bizkarreratu zuenean, ezin geldi egonik, bere beatz txi-kerrarekin silla bat ukitu zuen eta bai bereala beatz txikia iarturik gelditu ere⁵⁷.

54. Gerhard Bähr-ek esaten digu germaniarrek naturako gauza bizigabeak bizidunak bezela ulertzeko joera zutela. *RIEV*, XXII Z. 1931. 120 orr.

55. Gaintzan (Araitz Arana): Ramón Askarai Arsuaga, 55 urte. *Matxindo* baserria. 1984ko. urtarrillaren 11.

56. Kontutan izan antzeko kasuetan makila, bastoia edo makuluaren berezko majikoei buruz egindako gogoeta.

57. Uztegin (Araitz Arana): Jose Antonio Artola Gibelalde, 80 urte, eta Jose Artola Saralegi, 45 urte. *Sorozabal* baserria. 1986ko. otsailaren 26.

LUR ZATI BAT LAPURTZEAGATIK

Nere berriemaillearen auzoko aitona batek –Manuel Otaegi izenekoak– onela esaten omen zuen. Etxe batean, azkena ildako bat azaldu omen zitzaizkion, adieraziaz beraien aurreko iru belaunaldi inperuan arkitzen zirela, sendiko batek, bere garaian, lur zati bat lapurtu zuelako⁵⁸.

BASO-AIZKOLARI BATZUEI BIRAO-ZALEAK ZIRELAKO

Gizon batzuek arbolak botatzen ari zirela, giro txarra jarri zuen, kazkabar-erauntsia asi zun. Ordun, basa-gizon aiek bordara bildu ziren eta or elkarrizketan ari zirelarik, biraoka ekin zioten.

Orrela ari zirela, bordako ate gainean deabru baten irudia ikusi zuten, azitzen zijoan irudia, eta eskutatzen ez zena.

Gizonek bost misterioko errosarioa errezatu zuten, baiña deabruaren agerpenak an jarraitzen zuen. Kirireleisonak amaitu ondoren desagertu zen infernuko irudi ori, eta zugaitz-moztailleak etzuten geiago erligio aurkako itzik esan ez ezer egin⁵⁹.

OGI BEDEINKATUE ZAPUZTEAGATIK

Gaba zan. Eguraldi txar baten mutil bat mendiko bordan gelditu zan, belar pilla baten etzanda. Borda ortan sorgiñak gaberdiz bildu ziren dantza ta jolas egitera.

Eta ortan ari zirela, sorgin batek besteari onela esan zion: «Olako neska-txa gaizki zegon, eta ez dun sendatuko». «Zergatik ez dun ba sendatuko?», erantzun zion besteak. Elizatik atera zanean ogi bedeinkatua bota egin zihen, da zapoak jan, eta ogi ua neskatxak jaten ez badiñ, ez den sendatuko.

Eliz-atariko arri aundi baten azpian zegon zapoak eztarrian geldituta zeukan ogi ure.

Belarpean zegoen mutillak au entzun zuenean, gaizki zegoenari jakiñarazi zion. Gero zapoa billatu eta ogia kendu zioten eta neskak ogi au jan zuenean sendaturik gelditu zen.

Beste mutil batek, gertatua jakiñik, pentsatu zuen arek ere jakin bear zuela sorgiñek esaten zutena. Ontarako bordara joan zen eta belar tartean ezkutatu.

58. Larraulen: Anselmo Larrarte Roteta, 56 urte. *Larrunbide Etxeberri* baserria. 1988ko irailaren 20.

59. Leitzan: Kosme Zabaleta Zestau, 76 urte. *Joantxenea Beia* etxean. 1978ko. urtarrilaren 19.

Sorgiñek jakiñik zer gertatu zitzairen aurreko gauen, onela elkar mintzatu ziren: «Leengoan ederki aitu zizkiune kontuak; baiña gaur ikusi bear diñau mutil ori edo iñor badagoen». Eta an billatu eta arki zutena gau osoan beraiekin aidean eta poteka ibilli.

Goizean, eguna argitzean, mutilla zubi ondo batera eraman zuten esanez ezagutzen bazuen nungo zubie zan, an bertan utziko zutela, eta bestela beraiekin ibilli bearko zuela. Mutillak ordea asmatu zun zein zubi zen eta beraz libre utzi zuten⁶⁰.

GABAZ APUSTU EGITEAGATIK

Gaba omen zen ikazkin talde bat bere txabola barnean arkitzen zanean eta apustu egin aietako mutil batek, ainbeste buelta kanpoko aldetik txabolari eman edo ez.

Apustulariak korrikari ekin zionean tzabola eta bertako gizonak mugitzen asi ziren eta korrikalaria betiko izkutatu.

Au onela bizitu eta ikusi ondoren, beren txakurra kanpora bidali zuten eta au bai azkar asko txabolaren gaillurrera igo eta zaunkaz asi. Ikazkiñek berriz, belaunikatuz errezatzeari eman zioten.

Ikazkin aien baitan giza-lege bidezkoa etzuten errespetatu. Oroitu ziren, gabaz apusturik ez dela egin bear⁶¹. Kontakizun onek adierazten digu gaua gabekoentzat dela, zenbait izeneko gau-iratxoentzat, alegia, eta auek apustu guztiak galera izaten dituztela beren garai-aldi orretan.

GABAZ APUSTU EGITEAGATIK

Santos Zubillaga Jauregik daki bere aitarengandik, Andres izeneko artzai batek apustu egin zuela baietz joan Azkaratetik Tolosara, Zarate eta Be-daiotik zear, gaueko amabietan irten, makilla eta zorroa eramanaz gazta batzuekin.

Bidean zijoala bi aldiz entzun zuen eta gero eta urbillago: «Andres, buelta iau, ununtza bator ortzak zorrotz».

60. Uztegin (Araitz Arana): Jose Antonio Artola Gibelalde, 83 urte, eta Jose Artola Saralegi, 48 urte. Sorozabal baserria. 1989ko. apirilaren 2.

Zenbait aldatetarekin zapoak aoran daukan ogi bedeinkatuari buruzko kontakizun onen bertsio desberdiñak ezagutzen ditugu. J. M. Barandiaranek adierazi bezela, gaia errikoa da Euskal Errian, eta Barandiaranek berak eman dizkigu orren inguruko eferentziak. Ikus *Brujerías y brujas. Testimonios recogidos en el País Vasco*. Txertoa Argit. 1984. 15-16 orr.

61. Amezketan: Josefa Artola Zabala, 81 urte. *Zuritze-Goikoa* baserria. 1988ko. abuztuaren 28.

Baiña artzaia aurrera zijoan irugarren aldiz gauza bera entzun zuen arte, eta oraingoan bere ondo-ondoan oartzen zuelarik.

Orduan artzaiak makilla lurrean sartuta utzirik, eta zorroa ere bere gauze-kin, etxera bidea artu zuen eta etxeratzean, arrapaztaka eta itxumustuan, atetik sartu bearrean urreragoko leiotik abiatu zen barrura. Abiatu, diot, ez bait zuen ori iritxi, bertan ilda geratu zen ezker⁶².

AUR BAT EZ ZUZENTZEAGATIK

Nere berri-emaillea bere bosgarren aurrari bularra ematen ari zan, nexka bati, eta aren larogei urtedun aitak oartarazi zuen esanaz: ez utzi umeak bularra eskutxuaz jo dezan.

Ori gomendatzen zion jakin zuelako emakume bat urketara iturrira joatean, uretan ikusten zuela aur baten eskutxu irekia, eta ezagutu, zuela urte batzuk illa zen bere aur batena zela. Ikuskizun ori zela ta, emakumea etxera itzultzen zan negarrez.

Ama naigabetuak bere aitorentzulearengana joan eta galdetu zion ea aur arek eskuakin jolasteko oiturarik ba ote zuen. Emakumea gogoratu zen orduan, bularra ematean aurrak eskutxoaz jotzen zuela emeki-emeki eta berak etziola eragozten.

Orduan apaizak esan zion, iturrira zijoanean, baldin eskua agertzen bazitzaion, berori gogor jotzeko. Amak obeitu zion apaizari eta au entzun zuen: «Ama, orain ni zerura noa».

Eskua ezkutatu zen bein-betiko eta emakumea zoriontsu zan bere umeari orrela mintzatzen entzun ziolako⁶³.

BERE UMEAK KASTIGATZEN ETZITUELAKO

Ama batek ez omen zituen kastigatzen bear bezela bere umeak, eta il da gero ume aietako batek elizako sepulturatik ama zegoen lekura eskua atera eta luzatu omen zuen. Au ikusirik, amak fuerte-xamar jo omen zun bere alabaren eskua eta au ez omen zen geiago atera⁶⁴.

62. Betelun: Santos Zubillaga Jauregi, 80 urte. *Ipiarrea* baserria. 1975ko. uztaillaren 27.

63. Lizartzan: Milagros Aizpurua Alkorta, 59 urte. *Bengoetxea* baserria. 1988ko abuztuaren 15.

64. Itxason (Basaburua): Maria Zubillaga Oriozabala, 86 urte. *Goitiko Sukaldea* baserria (bere jaioterrian zaarrei entzundako ipuia, Etxarri-Larraun). 1987ko. abuztuaren 9.

LAPURRA ILLARGIAN ARKITU

Illargia, il-ondorengo bizilekua, illunpearen erregiña. Gaua zan, illargi beteko gau argia, gizon bat ote-lapurretara joan zenean. Eta bere ixilleko lan-saio onetan, illargiak geroz eta geiago argi egiten zion. Lapurreta egin ondoren etxera zijoala, ote sorta bizkarrean zuela, gure gizona illargiari erantsirik geratu zen. Zeruko ozkarbi illargi beteko gaubean ikus genezake albo izar orretan, lapurra eta bere ekintza fruituaren irudia.

Ipui onen amaiera beste era batera ere ezagutzen dugu. Alegiko Pedro Garaialde Jauregizabalek dionez, lapurra bere ote-zamarekin etxe atarira eldu zenean, illargiari begira onela deadar egin omen zion: «Kaka itzat», eta au esanda bat-batean lapurra eta bere ote-sortaren irudia illargian azaldu omen ziren, denon ikusgai betiko⁶⁵.

OSTIRAL SANTUZ ARKUMEA JATEAGATIK

Ostiral Santu eguna zan eta ikatza egiten ari ziren basamutillek txabolan arkitzen ziren. Aietako batek arkumea jan bear zuela ta besteek ezetz, alpe-rikako eztabaida sortu zuten, bakoitzak bereari eutsiz.

Arkumea jan zuena bereala il zen, eta bere eriotzarekin bat-batean argitasun aundi bat sortu, gorputzetik orairaiño Erromako zubiaren antzekoa. Gorputza txabolatik eraman eta argitasuna izkutatu edo itzali, bat izan zen⁶⁶.

JAI EGUNAK EZ GORDETZEAGATIK

Igande eta jaiak beti zuzen gorde izan dira lan-arazoari dagokionez, neka-zari artean bereziki, lan egiteko baimen zeatza lortu ezik beintzat, Eliz-agintariek garbi emana.

65. Tolosan (San Blas auzoan): Joakin Murua Aiestaran, 55 urte. *Zumarain* baserria. 1988ko. urriaren 9.

Kontakizunen batean lapurtutakoa ez da otea, egurra eta xirmendua baizik, Mallorca-ko mitologiaren kasu aberasgarria bezela. M. Lekuonaren bidez iritsi zaidan bertsoan, ez dago alako ekintza zigorgarririk, baizik eta baserritarak ez zuen bere ganaduarentzat jatena egiteko bearrezko sorta artu besterik egin.

Bermeon (Anton Erkoreka: *Bermeo. Nacimiento y muerte de Poso-illuna*, 6. Alea 1986/87. 164 orr.), illargiaren beltzunetan gizonaren irudia, bere ganadua eta gurdia garoz kargaturik, agertzen zen.

Mas, ¿qué son esas manchas que desplacen de este cuerpo en el disco, y en la tierra el cuento de Cain inventar hacen? Dante Alighieri (*La divina comedia: El Paraíso - Canto II*) olerki-lan onetan illargiaren beltzunek Cain-en irudia isladatzen dutenaren erri-sinismena isladatzen da, uste au zabaltzen delarik beltzune auetan beren erligio-botuak bear bezela bete ez dituztenen arimak ikustearekin.

66. Amezketan: Josefa Artola Zabala, 81 urte. *Zuritze Goikoa* baserria. 1988ko. abuztuaren 28.

Gai orretzaz, Luis Barberia Cia, Larraun ibarreko Aldaz errikoak, kontatzen zion bere alabari –eta onek neri– bere erritar bat ikusten zela igande ta jai, beti, bere aixkoltoarekin.

Il zen gizona eta alperrikakoak izan ziren egiñal guztiak ari eskutik aixkoltoa kentzeko, eta beraz erreminta eskuan zuela lurperatu bear izan zuten⁶⁷. Gai au berau era askotara emana izan da, eta erri-kontakizunen saila aberastu egin du.

DONOSTIARI, ARGINDARRA ESTRAIÑATU ZUEN EGUNEAN

Hernio mendi inguruan artzai batzuk arkitzen ziren, eta Donostian argi elektrikoa inauguratu bear zutela eta, aieri bururatu zitzaizoten ospakizun ortarako putre aundi bat sutan Donostiara bidaltzea.

Egaztia arrapatzeko zulo edo tranpa bat lurrean antolatu zuten, egur me batzuen gaiñean ildako ardi zar bat deigarri ezarriaz.

Putrea etorri zen ardia jatera; baiña azpiko egur meak autsirik, zulo barnera erori zen eta emen artzaiak jaten ematen zioten, Donostira bidali bear zuten gaua iritxi arte.

Egun ori eldu zenean, putrea zulotik atera zuten eta Hernioko gaillurrera eraman. Emen, anketatik lasto-balak lotuaz prestatu zuten, eta lasto bala aueri su emanez Donosti aldera bidali sugarra egan mugimenduz indartzen zelarik.

Gaba zen Donostiako argi elektrikoa lenengo aldiz piztu zutenean. Egaztiak egan argitara urbiltzen dire. Onela, sugarretan Herniotik irten zen putrea Donosti gaiñean pasa zen.

Zeruan gauz arrigarri ua ikusirik, donostiarrak bildurtu egin ziren kastigua zela, gaubez gizon-emakumeak elkarren naasin zebiltzalako, eta presaka bakoitza bere etxera ezkutatu zen, kaleak usturik.

Urrengo egunean putrea erreta ur gaiñean arkitu zuten eta artzaiak bai azkar zuloa edo tranpa estali ere⁶⁸.

ILLAK EZ DIRELA GUTXIETSI BEAR

Gizon bat, *Loontzio* izenekoa, oso aberatsa zen, eta jauregi baten bere nes-kameekin bizitzen zan. Nagusi arek esan zien bein bere neskameeri: «Nik olako egunetan asko gonbidatu ditut eta etxean bazkari on bat egin bear degu».

67. Latasan: Maria Angela Barberia Goikoetxea, 52 urte. *Aranzadi* etxea. 1988ko. uztailaren 27.

68. Zestoan: Jose Ibarbia Iturria, 81 urte. *San Juan Zaharren egoitza* (Errezilgo Basabe Goenako baserrian jaioa). 1988ko. azaroaren 6.

Gizona mendizalea zen eta bazkal-eguna iritxi zen goizean, neskameei esa zien mendira ibillaldi bat egitera zijoala eta bazkal ordurako itzuliko zela eta denak prest egon zitezela gonbidatuei ongietorria emateko.

Bere makilla artu zuen eta esan bezela mendira abiatu zen. Bidean zijoala, gizon baten buruezurra ikusi zuen eta makillakin irauliz, onela mintza zitzaion: «Gizon, zer egiten duzu emen?, zu ere ni bezela bizi izandakoa izango zera ba; ni emen nabil pasiatzen, gaur eguerdian nere lagunak bazkaltzera etortzekok ditut eta zu ere gonbidatzen zaitut». Au esanik, segidan buruezurre ostikoz jo eta pinpili-punpulukaka aldapan bera bota.

Jauregi nagusia etxera bildu zen eta baita aren gonbidatuek ere, bere garaian.

Bazkari erdi aldean, ikaragarritzko ate-soiñua entzun zuten jauregian. Serbitzariak leiora atera ziren zer gertatzen ote zan ikustera, eta ara non ate ondoan gizon beltz izugarri bat zegoela oartu ziren. Neskame aietako batek leiotik gizon arrotzari galdetu zion: «Zer nai zenduke?», eta erantzuna au izan zen: «Nik *Loontziorekin* egon nai dut, gaur emen bazkaltzera gonbidatu bai nau».

Serbitzaria bildurturik, nagusiarena joan zen, bazkaltzen ari ziren lekura, eta onela esan zion: «Gizon beltz zatar bat atetan dago, zuk gonbidatu duzula esanaz». *Loontziori* gorputz guztiko dardara sartu zitzaion au entzun zuenean, eta neskameari esan zion ateko gizonari adierazteko lanpeturik zegoela eta beste batean etortzeko.

Ori jakiñik, ate-ondoko gizonak onela erantzun zuen: «Nik *Loontziorekin* gaur egon bear det, gonbidatu egin bai nau», eta bat-batean, aidez leiotik gela-nagusiaren erdi-erdira sartu zen eta eskua *Loontziori* luzatuz onela esan zion: «Ekatzu esku ori, gaur zuk mendian gonbidatu egin nauzu, eta ni zu bezelaxe mundu onetan bizi izana naiz, zuk ostikoz jo eta bota egin nazu, eta ni inpernutik nator. Orain goazen biok elkarrekin».

Loontziori gerritik atzaparrak sartu eta aidean jira-biraka biak sugarretan mendian barrena izkutatu ziren, lekuko guztiak ikaratu eta arriturik utziaz.

Nere berriemailleak bere aitari entzuna omen du, ez dela ildakorik gutxietsi bear⁶⁹.

SUAK, PENATZEN ZEGOEN ANIMA AGERTU

Tomas Txikito Aresoko *Arbitxi* baserrian bizi zen, eta bere burua leiotik bera boteaz bere egunak amaitu zituen. Etzan ordea bereala il; arrastaka

69. Lizartzan: Milagros Aizpurua Alkorta, 59 urte. *Bengoetxea* baserria. 1988ko abuztuaren 15.



aldapan bera sasi tartera joan zen eta or il. Bere andreak irugarren egunean arkitu zuen *Txikito*ren gorputza.

Andik illabetera *Olatxeta* baserrian txerria faltatu zen eta etxeko morroia, Joan Elduaie izenekoa, txerri billa illuntzean atera zenean *Tomas Txikito* ilda topatu zuten toki berean su aundi bat ikusi zuen, ezer erretzen ez zuen sua.

Su onek adierazten zuen *Tomas Txikito* etzegoela zeruan, eta bere animaren alde *Olatxetako* baserrian erreztatzeari ekin zioten.

Nere berriemillea gogoratzen da au orain dela berrogeitabi bat urte gertatua dela⁷⁰.

ESKU-BEDEINKAZIOA ETA LAPURRA

Gizon batek bazekian lapurreta baten berri; baiña lapurrak beti uko egiten zuen. Ordun salatari apaizarengana joan zen esku-bedeinkazioa egiteko esanez.

Apaizak erantzun zion ori oso gauza gogorra zela. Salatariak, bi errearen okerrik etzuela izan bear, bestela zerbait txarra gertatuko zitzaiola, bere buruak lapurrarenak aiña arrixku izango zuela.

Alaz eta guztiz ere, esku-bedeinkazioa egiteko apaizari eskatuz jarraitzen zuen.

Apaiza, bere betebear onetan oiturazko errezoak egiten ari zela, oin bateko zapata arrika bota zuen, esanez: «Au ere bear al dek?» (Etsaiari egingdako galdera zen au).

Esku-bedeinkazioa egiten ari zela, lapurra teillatua konpontzen arkitzen zen eta bertan eriotza etorri zitzaion⁷¹.

70. Areson: Migel Barandarain Labaien, 54 urte. *Olatxeta* baserria. 1971ko. ekainaren 30.

71. Tolosan (Aldaba-Txiki auzoa): Fernando Aristi Garmendia, 75 urte, eta Jose Aristi Garmendia, 73 urte. *Isasti Goikoa* baserria. 1988ko. abenduaren 4.

Debekua

GABON GABEAN EZ DELA ARRANTZARA JOAN BEAR

Nere berriemaillea arrantzale sendikoa degu, eta bere amari –Teresa Lersundi Lezertua, Ondarrun jaioa– entzuna dio sarritan nola bere arbasoak esan oi zuten Eguberri bezperan edo Gabonetan, etzela angula-arrantzara irten bear. Bein baten arrantzale bat bere tresnak artu eta gabaz, aipatutako lan-saioari Gabon gabez ekin zion eta aren aztarrenik etzan geiago izan. Ez omen zen azaldu ez bizirik eta ez gorputz. Teresa Lersundik bere aitarengandik, Ondarruko arrantzale izan zen Sebastian Lersundigandik daki gertaera au⁷².

OSTIRAL SANTUZ EZ DELA UZTARTU BEAR

Bedaioiko nekazari bat Ostiral Santu egunez beiak uztartu eta ondoren bere gurdiarekin arbitara joan zen.

Bere lanean ari zela, beiak berenez uztarritik askatuta gelditu ziran⁷³.

OSTIRAL SANTUZ EZ DELA LIXIBARIK EGIN BEAR

Ostiral Santu egunez ez da lixibarik egin bear, arropa zurie gorritua gertatzen bait da⁷⁴.

72. Donostian: Jose Manuel Susteta Lersundi, 52 urte. 1988ko. azaroaren 2.

73. Tolosan (Aldaba-Txiki auzoa): Fernando Aristi Garmendia, 75 urte, eta Jose Aristi Garmendia, 73 años–. *Isasti Goikoa* baserria. 1988ko. abenduaren 4.

74. Abaltzisketan: Felisa Elizegi Tolosa, 88 urte. *Etxeberrinea* baserria. 1986ko. abuztuaren 10.

Meatxua

ERIOZAKO ORDUAN ERE EZ DIZUT BARKATUKO

Aresoko baserritar batek –Mateo Jauregik– Leitzako beste nekazari bati, *Biur* basetxeko Tomasi, bei bat erosi zion; baiña itzez tratua egitean, erosleak duro bat gutxiago ordaindu zion. Jokabide oker ori ikusirik, saltzailleak onela esanaz agurtu zuen: «Ez diat barkatuko ogerlekoa, ezta eriozako orduan ere».

Urte batzuk geroztik, zorduna illurren zegoen, il eziñik; baiña buruz argi ala ere bei-saltzailleak esandakoa gogora zetorkiola. Gauzak orrela, eskatu zuen joan zedilla senidearteko bat Leitzara zorra kitatzera.

Gaixoaren borondatea bete zuten bada, eta zor ordaintzea egin bezin laister, ordu berean il omen zan zorduna⁷⁵.

LEITZAKO JENTILLEN AMENAZUA

Leitzako Erasote auzoan jentillen zuloak arkitzen dire, eta zulo aietako batean, *Ozparrungo* etxekoandrea sartu zen; gero orrazi bat lapurtu ondoren, irten egin zan.

Erasoteko jentillek txikik eta aundik ziren, eta aietako iru edo lau *Ozparrungo* atetara joan ziren, dei onela egiñaz: «Iñazi, Maiñezi, ekatzan nere buruko orrazi, gaiñekon izan don ire denborako ezurretako oiñaxi».

Ozparrungo andreak ez zuen orrazirik itzuli eta bere bizi guztirako ezurretako miña izan zuen⁷⁶.

75. Areson: Migel Barandarain Labaien, 54 urte. *Olatxeta* baserria. 1971ko. ekainaren 30.

76. Leitzan: Kosme Zabaleta Zestau, 76 urte. *Joantxenea Beia*. 1978ko urtarillaren 19.

Kontakizun au bat dator funtsean M. Lekuonak bildutakoarekin, J. M. Barandiaranen esku-tik ezagutzen dudalarik. Ikus O. C., II, *Eusko Folklore*, 23 or.

Ezkurrako jentillak

Ezkurrako jentillak giza-neurri txikikoak ziren, metro ta ogei, metro ta ogei-tamar zentimetro zutenak. Armalazuloa zeritzan koba batean bizi ziren, eta erri azpikaldean zegoen bera, Telleri izeneko lekuan.

Gabaz bakarrik uzten zuten bere gordelekua eta orduan baserritarrek landutako lurraz gozatzeko.

Badirudi ordea, ezerk ez diola betikoari iges egiten, eta beraz ezta jentillen bizitzak ere. Eta au diot, bazelako aien ume bat, zortzi urte ingurukoa, erritarrekin adiskidekiro ibili oi zena, jendeak jaki askorekin saritu oi zuten, arek beretarrei eramaten zizkielarik.

Orrela zijoazen egunak, ezkuratarrek ume ura bataiatzea pentsatu zute-nean. Ortarako eraman zuten *Torraíñea* zeritzan etxera, baiña etzuten apaiza arkitu. Andik *Amarrandegi* deituriko landetxera joan ziren –eliz amarrenak oiturakin loturiko izena noski–, bertan apaizak bataiatuaz.

Jentillek ordea, kristau berriaren falta berentzat utsune aundia billakatz-en, eta aietako batek *Torraíñea* baserrian dei egin zuen, ordundik eta luza-roan esku baten aztarrena ikus ziteken atean, jentill deitzaillearena noski. Azkenik umea arki zuten eta bere etxepera eraman, eta Ezkurrako jentillek galdu ziren betiko⁷⁷.

77. Ezkurran: Migel Antonio Mariezkurrena Telletxea, 80 urte. *Kastenea* etxea. 1981ko. abenduaren 17.

Ezkurrako dorrea

Ezkurran Bibliako Babelgo dorrearen parekoa eraiki nai izan zuten, eta ortarako bururatu zitzaien, gauzarik egokiena izango zela kupela kupelan gainean ezartzea (entzuna det baita ere ortarako otarrez baliatu zirela); baiña ezkuratarren asmo arroxkoak uts egin zuen, kupela baten faltaz ez bai ziren iritxi zerua jotzera. Orduan, gauzari bear zen akabera ona eman nairik, erabaki zuten aurreneko kupela kendu ta gaillurrean jartzea, eta orrela dorre guztia lurrera erori zen.

Erasungoei ere asmo ori bera erasten zaiete, eta Lekunberrikoei, eta beste⁷⁸.

78. Lekunberrin: Bonifazio Etxarri Mitsaus, 81 urte. *Ostatu Berri* etxea. 1986ko. abuztuaren 30. Kontakizun au, *Industria para llegar al cielo* izenarekin A. Donostiaren bidez ezagutzen dugu. Ikus Aip. Lan. 134 orr.

Eskalea

ZOKORRA

Izen ori zuen eskalea Agurain (Salbatierra) sailletan ibilli oi zen. Beratzaz esaten zen, *Lezago* basetxera urreratzean, bertako ateak berez irekitzen zirela eta an erretiratzen ziren ganaduak ateratzen zirela ikullutik ingurumari-riko larretara, Agurain eta Egileor bitarte ortan⁷⁹.

SANTA ENGRAZI URRI GORRI

Santa Engrazia txerri gorri baten irudian ermita egiteko arri biltzen ibiltzen zan.

Eta topo egin zuen gizon batekin, eta onek ostikoz jo zuen esanez: «Ze abille emen, txerri gorri?» Eta Santa Engraziak erantzun: «Ni ez naiz txerri gorri, baizik andre santa urri gorri»⁸⁰.

ESKALEA ETA KANPOTAR BIXITALARIA

Etxe batean bizi ziren ama-alabak sorgiñak zirenak, eta gau baten beraiekin eskale bat arkitzen zan.

Ordua iritxi zenean, sorgiñak gorputza ukenduz igortzi zuten, eta bai azkar asko leiotik kanpora aldegin ere.

Eskalea zartagian oillaskoa prejitzen utzi zuten eta goitik, tximinitik barrena, gizon batek onela otsegiten zion: «Eroriko nauk?», eta eskaleak erantzun: «Erori adi nai baduk, baiña ez nere zartagira».

79. Salvatierra-Agurainen (Arrizala auzoa): Maria Rosario Otxoa de Alaiza San Martín, 68 urte. 1981ko. uztailaren 5.

80. Itxason (Basaburua): Maria Zubillaga Oriozabala, 86 urte. *Goitiko Sukaldea*. 1987ko. abuztuaren 9.

Iru aldiz egiñiko galdera berak, «eroriko naiz?», beste orrenbestez erantzun berdiña izan zuen: «Erori ari nai badok baiña ez nere zartagira».

Bereala tximinitik sukaldera jetxi zen eta eskaleari esan: «Aitxur ori artzak». Eta eskaleak erantzun: «Artzak erorrek». Arrotzak aitxurra artu eta su bazterrean jo eta berealdiko diru pilla atereaz eskaleari esan zion: «Oik itzat». Au adieraziz, etorritako bidetik joan zen, tximinitik barrena ezkutatu zen⁸¹.

81. Azpirotzen: Bernardo Argiñarena Soroeta, 64 urte. *Iriarte* etxea. 1982ko. abuztuaren 15.

Artzantza

SAN DONATO ETA ARTZAIA

Arakilgo Unanuako artzai batek ardi batzuen falta nabaitzen zuen, eta aiek berreskura nairik, San Donatori otoizka ari zen berari jasotako ermitan, izen bereko mendi gaillurrean.

Artzaia egunero zijoan aipatutako baselizatxora eta bere eskariei entzungor egiten ziola eta, egun batez, eldu zion santuari goitik bera amiltzeko asmoz; baiña etzan gauza izan bere naia burutzeko eta ortan geratu zen gauza. Irudia an utzi zuen leize ondoan. Egun batzuk geroztik, utzitako lekuan zegoen ala ez ikustera urbildurik, santua, bere almen utsez lengo bere tokian zegoela egizta al izan zuen⁸².

ARTZAIA ETA SUGEA

Artzaiaren txabolako zulo batean sugea bizitzen zan. Artzaiak txistu egiñaz sugeari deitzen zionean, sugreak, bere gordelekutik atereaz, ontzi baten berarentzat prest zeukan esnea edaten zuen. Eta denok dakigu sugea esnezalea dela.

Ontan, artzaia egun batzuetan kanpoaldetik ibilli ondoren, txabolara itzuli eta sugeari adiskidetasuna agertuaz, oiturazko txistua egiñez deitu eta sugea bere zulotik atera zen, goseak noski, eta artzaia lepotik artu eta ito⁸³. Onen antzeko kontakizuna zenbait erritan entzuna dut.

82. Iltzarben (Ollaran): Raimundo Ollacarizqueta Oteiza, 74 urte. *Txatxerena* etxea. 1988ko. uztailaren 17.

83. Tolosan (Santa Luzia auzoa): Antonio Larrarte Mokoroa, 68 urte. *Perrategi* baserria. 1977ko. irailaren 2.

ZOZOMIKOTEAK. ILLABETEAQ MINTZO ZIRENEAN. ARTZAIGIROZKO KON- TAERA

Zozomikoteen kontakizuna zenbait kulturatan agertzen da, Adibidez Grezian, eta ondorengo datuek balio dute berorren sorkuntza, euskal alorrean, martxo-apirillean kokaturik jartzeko.

Erderak agintzen duen tokietan, edota erdera-euskerak, kontraeraren funtsezko muiña aldatzeke, gertakizuna, geienbat, otsaillan jartzen da, ondoren egizta dezakezunez.

Legardan jakin nuen artzaiak esan zuela, otsaillaren ogeitaseian amaitzera zijoanari: «Ai otsail, otsail, gaurtik nere axurik ez dik ire bildurrik», negua menderatua zelako ustetan. Otsaillak, eraskiñik gabekoak noski, onela erantzunik: «Falta diran bi egunekin eta martxo lagunak ematen didan batekin, utziko diat artzaia makilla bakarrik besapean duelarik». Ori esan eta bertatik elurra asi omen zen. Iru eguneko elurrak artaldea goseak il zuen.

Aietxun, Urralgoiko Aranean, kontatzen zidaten artzaiak otsailla gutxiesten zuela esanaz: «Otsail, otsailtxo, ez duk ire beldur ene axuritxo». Orren erantzun au jaso bear izan zuen ordea, otsaillaren zigor-meatxu bezela: «Oraindik dauzkanan bi egunak, eta martxoak emango dizkidan beste birekin, akabo ire artalde denak». Otsail-azkenetan, Zendeako Izan, Sarasateko artzaia pozez zoratzen omen zegoen, negualdirik gaiztoena aixa gainditu zuela ta, beraz etzuela asmorik, ala zion berak, agindutako ardi-eskeintza otsaillari egiteko.

Jokabide kaxkar au ikusirik, Otsaillak ala dio artzaiari, elurra astearekin batera: «Bi azken egun oekin, eta martxo lagunak damaizkidan beste lauekin, utziko aut i besapean ardi-kollara utsarekin».

Artzai bat Amezketako Udaletzeko billera batera agertu omen zan, eta biaramonean bere aitak batzarrean artutako erabakiaz galdetzean, semeak esaten dio erabaki zela Martxo kentzea. Ori aditzean ala zion aitak: «Naikoa egin dezue, gure ardi txarrenak orretxek galtzen dizkit».

«*Zozomikote* egunek, tristeak eta illunek», entzuten nuen ba dira urte batzuk Azkaraten. Orexan ere sarri aditzen zan: «Orain *zozomikoteak* dituk», artaldea eta bizkarrean zeraman aarik adar-kolpez begia atera zion artzaiaz oroiturik.

San Bizente Aranako artzaiak martxoari agindu zion, legun-legun igarozten bazen, arkume bat emango ziola. Iritxi zen bada illaren ogeitabederatzia eta artzaiak esaten dio onezkero etziola bildurrik eta agindu zionaz aaztu zedilla.

Orduan martxoak darantzuio: «Oraindik dauzkanan egun birekin eta apiril lagunak utziriko beste ainbesterekin, utziko diat artzaia ezerezekin». Onela martxoak aditzera eman zuen bere zemaia, artzai eta arkumeari lau egun barru uraldeak eramantik.



Aiako Laurgain auzogunean *zozomikoteaz* edestu zidaten kontakizunak zerbait berri dakarki. Errixka onetan jakin nuen martxo giroa ona izaten zela, arantzaren azpian zezenak marru egiñez.

Ori aditzean, martxoak bi egun terdiko eguraldia txartu egin zuen eta apirillari beste bi eskatu, «arantza azpiko xexen orri irrintzik egiteko gogoia kentzeko». Diotenez, orduan zezenak esan omen zuen, egun oiek igaro arte, zentzuzko jokabidea zela, arran-bete belarrondo bada ezpada ere gordetzea.

Zozomikoteen kontakizunak, oitura onekiko intentzio garbia dagerkigu. Artzaiaren berekoikeria eta esker txarra salatzen ditu, eta ondorioz, otsail eta martxoak ezartzen dioten zigorra, itzemana ez betetzeagatik ongi merezia⁸⁴.

84. Legardan: Joakin San Martin Elia, 74 urte. *Lanako* etxea. 1986ko. uztailaren 5. Aietxun (Urraulgoiti Arana): Inozentzia Gil Villanueva, 86 urte. *Esquide* etxea. 1988ko. maiatzaren 26. Sarasaten (Iza Zendea): Dionisio Arizaleta Villanueva, 84 urte. 1988ko. uztailaren 5. Amezketan: Maria Izaskun Zubeldia Ezcurdia, 47 urte. *Errota Zarra* etxea. 1986ko. ekainaren 8. Azkaraten (Araitz Arana): Pedro Migel Saralegi Irurzun, 76 urte. 1978ko. apirilaren 22. Orejan: Estanislao Iturrioz Ibarluzea, 71 urte. *Mikelenea* baserria. 1985ko. irailaren 30. San Bizente de Arana (Arabako Ullibarri Arana): Justo Pérez de Lezeta Aldai, 65 urte. 1988ko. uztailaren 10. Ayan (Laurgain auzoa): Joakin Alustiza Telleria, 71 urte, eta Maria Isabel Zuloaga Azkue, 62 urte. *Casa Palacio de Laurcain*. 1987ko. azaroaren 8.

Abere eta landareak mintzalari zirenean

ASTOA, BELARRA ETA OTSOA

Asto bat ermita baten ingurura joan zen larrera, eta belarrak esan zion: «Aurreaxo goxo». Baiña astoak belarrari, goseturik bai zegoen, erantzun: «Bertan goxo, bertan goxo». Eta onela belarra jaten ari zela, otso bat azaldu eta otsoari esan: «Nik jango aut i».

Au entzunik, astoak otsoari erantzun: «Ez, ez nauk jan». Eta otsoak berriro: «Bai, nik jango aut i», eta astoak erantzun: «Bai, jango nauk baiña ermitan meza entzun ondoren». Otsoak: «Bai, utziko diat ba meza entzuten».

Astoa ermitan sartu zen eta ateak itxi zituen; eta otsoa kanpoan, noiz ua aterako zai. Ordua joan eta ordua etorri, astoak barruan jarraitzen zuen. Au onela, otsuak kanpotik kanta omen zion:

«Asto zar mukitzu
Sobra ta geiegi dakizu
Urrena arrapatzen zaitutenean
Mezik entzungo eztezu»⁸⁵.

LAPURRA ETA BELEA

Lapur baten atzetik bi algoazil mendi-bidean zijoazten, eta etsi zutenean, onela elkarrari esan zioten: «Ori joan dek eta etzegok arrapatzerik». Ori arbola baten gaiñean zegoen bele batek entzun eta bai aguro lapurra salatu ere bein da berriz esanaz: «Oraintxen, oraintxen, oraintxen». Ordun, egaztiari zer

85. Larraulen: Norberta Amonarriz Garmendia, 69 urte. *Larrola* baserria. 1980ko. irailaren 25. Tolosan (San Blas auzoan): Joakin Murua Aiestaran, 55 urte. *Zumarain* baserria. 1988ko. urriaren 9. Egoera berean berdiña da azeriaren abestia. A. Donostia: *El burro y el zorro*. Aip. lan. 132 orr.

esan nai zuen ulerturik, algoazil batek besteari esan zion: «Goazen, goazen, lapurra arrapatu bear diagu»; eta bai azkar arrapatu ere⁸⁶.

86. Tolosan (San Blas auzoa): Joakin Murua Aiestaran, 55 urte. *Zumarain* baserria. 1988ko. urriaren 9.

Egontokiak eta iratxoak erri- -kontakizunetan

ANBOTOKO DAMIAK AARIA OSTU ARTZAIARI

Oiñatiko Arantzazu auzoko *Soroandieta* baserrian kontaktzen zidaten, San Juan Bautista egunez, belarrez moldaturiko kutun bedeinkatuak, *Anbotoko Damia* uxatzen zutela, aldiz Anboton eta aldiz Aloñako *Gaixto Zulon* bizitzen zena.

Egun batez, artzai bati *Anbotoko Señoriak* aarixa lapurtu omen zion eta Aloña mendiko *Gaixtozulon* gorde.

Artzai arek bere lagun bati bai esan ere zer pasau xakon, eta onek «kutuna» aitaturako belarrez egiña berarekin euki. Bi gizonak *GaixtoZulora* joan ziren eta *Anbotoko Señoria* ostutako aarixakin arkitu: baiña aarixaren jabea bere ganaduari eltzen ez atrebidu eta bere lagunari esan omen zion: «Euk elakixok albalekixok!» Eta lagunak erantzun: «Bai, eldukotxat, aldien xaukat San Juan goixean bedeinkatutako belar-kutuna, erruria eta agixua dituen».

Au entzunik, *Anbotoko Damiak* iges egin zuen azkar asko, su bola baten itxuran Aloñatik Anbotora. Ondoren bi gizonak bere aarixakin euren txabolara abiatu ziren⁸⁷.

87. Oiñatin (Arantzazu auzoa): Juan Urzelai Biain, 66 urte. *Soroandieta* baserria. 1986ko. urriaren 19. Egoki iruditu zait Anton Erkorekaren lana emen aipatzea, Laminak (kontakizun bilduma). *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* delakoan jaso. X. urtea, 30 Zk. 1978. 451-491 orr., eta XI. urtea. 31. Zk. 1979. 65-124 orr.

MARIA ROCA AITZGORRITIK AUZKOLARREKO KOBARA

Maria Rocak bere kobia Aitzgorrin zuen, eta emendik pasatzen zan Olazti edo Olazagutiako portu gaiñeko *Auzkolarre kobara*, buztana garretan zuela eta illinti egurrak sutan botiaz⁸⁸.

88. Olazti-Olazagutian: Pedro Bengoetxea Galbete, 79 urte. 1980ko. martxoaren 3.

Marik eta bere bizilekuak artzen dituzten izen desberdiñen artean, adierazi nai dut berriak suertatu zaizkidala kontakizun labur onetan agertutakoak: *Maria Roca* eta *Auzkolarre* kobazuloarenak.

Begizkoa edo begigaitza sortzeko almen gaiztoa

GOIZUETAN

Goizuetan, *Zibola* etxeari *Sorgin-etxea* zeritzaion. Bertako etxeoandrea ikusi oi zen begi bat estalirik zapi batekin. Elizarakoan danborjotzaille bat aurrean zuela joan oi zen, eta beragatik zioten begizkoa sortzeko almen gaiztoa zuela.

Etxea utsik gelditu zan andre ura il zenean. Urte batzuetan utsik iraun zuen; *Sorgiñetxe* deitzen zioten, esan dugunez, eta iñor etzen ausartzen an bizitzen. Gauregun bizitza askoko etxea biurturik dago.

Nere berriemallearen amak ezagutu zuen *Zibolako* andrea eta konta dugun orren lekuko ere izan zen, XIX-garren mende inguruan⁸⁹.

89. Goizuetan: Maria Teresa Areizaga. *Alduncin* Armeri Jauregia. 1986ko. abuztuaren 24.

Konjuroa

ODEIPEAN EZKUTATUKO PERSONAIA GAIZTO BATI

Beiñola, *Perurena* deituriko egoitzan, Goizuetako Errikoetxe aurrean, bizi zen *Ezponda* izeneko gizon bat, aginduzale beldurgarria, erriko jauntxoa.

Ilzen *Ezponda*; baiña noizik bein presente irauten zuen bere zaldiaren perraotsa zela medio. Zalduna eta zaldia ibiltzen ziren odei illun eta meatxugarria ezkutaturik, eta orrek konjuruak eskatzen zuen, noski, kalte-uxagarri.

Konjuru egitea eliz-nausiko apaiz batek egin oi zuen eliz ataditik, eta arrixkua zetorren aldera begira, oiturak agintzen zuenez. Gauzak orrela, egun batez gertatu zen, konjuruak etzuela indarrrik *Ezponda* misterioitsuaren estalgarri zen odeia uxatzeko, eta ori ikusirik, apaizak bota zuen bere ezkerreko oiñeko zapata odei zatar kezkarri alderuntz, ber-bertatik zerualdea argitzen zelarik.

Beste batean berriz, konjuruak etzuen eragiñik eta apaizak gurutzeaz baliaturik, Mandoegiko lezezulora bideratu zuen ekaitza, Goizueta lurretara.

Lezeko ao aurrean, apaizaren lagun batek liñazi erru erdia zabaldu zuen barrualdera begira gaiztetsiz, apaizak oiuka ziola: «Ale aña urteko!» Denbora ori kastiguz *Ezponda* barnean egon zedilla adieraziz. Baiña pertsonaia bildugarriak bere abotsa entzunarazi zuen erantzunaz: «Nik oieke beteko». Ordunik, aipatutako leze ori, *Ezponda* deituraz ezagutzen da, eta ekaitzaldian, goizuetarrak onela diote bere jardunean: «Ezponda mogitu duk orain ere»⁹⁰.

MURUMENDIKO DAMIA

Murumendiko Damia aidez izar baten antzera itxaso aldera pasatzen bazan eta uretan sartu, turmoi soiñua sortzen zen. Onela gertatzen bazen, egun batzuetan zear denbora txarra.

90. Goizuetan: Zeferino Etxegia Berroeta, 63 urte. *Paskoltzenea* etxea, eta Gertrudis Zubilaga Arrieta, 84 urte. *Fuentenea* etxea. 1986ko. irailaren 21.

Santakutzetatik Santakutzetara –maiatza eta iraillez– egunero konjurua egin zen, eta berdin beste egunetan ere urtean zear egoaldi txarraren beldurrik bazen.

Murumendin *Damiaren* bizilekura, au da, leize atadira joan eta konjurua egin oi zen. Orduan, *Damia* barruan arrapatu ezker, ekaitza ekartzeko almena kentzen zitzaion⁹¹.

KONJURUA PRAILLEAREN AURKA

Oiartzungo *Legarre* etxea konbentua zen, bertan prailleak bizitzen ziren eta oietako bat *Txanbenat* izenez ezaguna. Onek eta eliznausiko erretoreak elkarren arteko espak izaten zituzten.

Bein batean, *Txanbenatek* esan zion erretoreari, alako egun baten Iruiñera joan bear zuela. Au entzunik, erretoreak onela erantzun zion: «A, bai, ondo, ondo; biajea ondo egin».

Txanbenati eldu zitzaion bada bidean jartzeko eguna eta une artan jaun erretoreak konjurua egin zuen arri-jasa praillearen bizkarrera eror zedin.

Txanbenatek ikusi zuen eguraldi aldaketa, eta laister igarri zion erasoa bere buru gaiñean zuela, eta pentsatu, ori erretorearen lana zela iñondik ere, eta etxera abiatu zen, baserri batean bei-larru bat eskatuaz. Eman zioten, eta ua burutik bera jantzi eta erretorearen sagastira zuzenean joan zen. Sagastia loretan zegoen, eta *Txanbenat* arbola azpitik arbola azpira ibilli zen sagar lore denak txikituz.

Azio txar au amaitu ondoren, berriro Iruiñarako bidea artu zuen, eta itzul-tzean erretorearekin topo egin, eta onek galdetu zion: «Ondo egin al duzu bidiaia?», eta *Txanbenatek* erantzun: «Bai, oso ongi; eta zuk nola daukazu sagastia?» «A, ez dakit; aspaldi ez naiz izan eta!» «Ba, joan egin bear zendeke eta ikusi ea nola dagoen», erantzun zion fraileak.

Erretorea joan zen sagastira eta dena zearo txikituta ikusirik pentsatu zuen: «Orri –*Txanbenateri*, alegia–, iñork etziok peatzen»⁹².

91. Beizaman: Juan Inazio Ezeiza Galarraga, 81 urte. *Urki* baserria. 1988ko. urriaren 2.

Kontakizun onek burura dakarkit zenbait aldagetarekin J. M. Barandiaranek jasotakoa, eta irakurri dut *Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore* delakoan. 1921. 99 orr., eta «Mari, o el genio de las montañas». *Homenaje a D. Carmelo de Echegaray*. Donostia-Gipuzkoako Diputazioaren Moldiztegia, 1928. 264-265 orr.

92. Renterian (Zamalbide auzoa): Antonia Auzmendi Zuloaga, 74 urte, eta Salbador Larzabal Berra, 87 urte. *Lubeltza Berri* baserria. 1989ko. apirilaren 9.

EZ DU INDARRIK

Nere berriemailleak gogoan du bere aurrekoei entzun izana, andre eda detu batek guztien aurrean esaten zuela, bera iltzean, zeuzkan diruak bere ilkutxan jartzeko.

Il zen bada emakumea, eta errian zabaldu zen familikoek bete zutela aren naia, bein da berriz arek azaldua. Gauzak onela, asko luzatu gabe, gau batean iru-lau erritar kanposantura joan ziren paola berekin zutela eta ilkutxa lotsa gutxiz miatu zuten, illaren gorputza bai baña dirurik arkitzeke.

Egun berean erretore etxean urteroko txerri-ilketa egin zuten, oi zenez, jakiñeko kakotik zintzilika utzirik.

Ikazkin batzuk jakiñik txerri illa kanpoan zegoela, utzi txondarra, errira jetxi, eta gabaz, txerriaz jabeturik, zaku baten sartu eta mendira eraman zuten, asmoz beren lan tokira. Bere bidean zear kanposantu ondotik igaro bear zuten, eta atsedean artuz, utzi zuten ormakontra txerria zeramaten zakua (pareta alperrikakoagorik ez dela dio Valle Inclanek, illen eta bizien arteko ori baño). Baiña karga aztunaz arindu bezin laister, konturatu ziran illerriko pake ixilla austen zutela mugitzen zan argi motel batek eta itz-ots motel batzuk. Ikazkiñek sinistu zuten mundu ontatik joandako bizidunak zirela eta azkar urrutiratu ziran andik, txerria bertan utziz.

Diru-billatzaillak ere konturatu ziren bazebiltzela norbaitzuk inguruan, eta zelatariek izango zirela iñondik ere; presaka alde egitean ordea, oartu ziren, orma gaiñean bazegoela parded bat, eta azkar ireki zuten zakua, txerria atera eta emakumearen gorputza sartu.

Eguna argitzean, ikazkiñak biurtu ziren lapurtutakoa berreskuratzeko asmoz, eta zakua beren txabolara eraman zuten, eta bertaratzean, ara non arkitzen diran ustegabeko nai etzutenarekin, zaku-barruan zerririk ez baña egun batzuk lenago errian il zen andre zar baten gorputza baizik. Ikazkiñek azioa apaizaren gauza izango zelako susmoa artu zuten, eta iruzur egin zielakoan, oroitu ziren aren beorkumea inguru artan larrean zebillela. Joan ziren eta menderatu zuten *beorkumea* eta bere gaiñean andre zanaren gorputza jarri zuten anketatik ongi loturik.

Andik zear zijoazen artzai batzuek eta ikuskizun bildurgarri ura ikusi, agerpen baten lekuko zirela uste izanik, emakume ezagun eortzi berriarena, alegia, apaizari presaka joan eta berri eman zioten, konjurua egin zezala arren eskatuz, ikuskari ura desagertu zedin.

Apaiza kapa aundiz jantzirik, bere beor ederrera igo eta abiatu zen eskatzen ziotena betetzeko asmoz. Baiña, arestian esan dudanez, ildakoa gaiñean zuen beorkumea apaizaren beorrarena zen ain zuzen. Apaiz gizarajoa an ari zen bein da berriz konjuruka; baiña beorkumeak bere amarengana jotzen zuen eten gabe konjuratzaillera gaizki utzirik. Ori ikusita apaizak etsi zuen etzeagoela an zer egiñik, eta etxe aldera jo zuen lauoinka bizian. Presa-

kako erretira onetan beorkumeak bere amari zintzo jarraitu zion, eta apaiza etxera eltzean burua makurtu zuen ateburua ez jotzearren barrurakoan. Beorkumea amaren atzetik zihoan; baiña ildakoak etzuen bururik makurtu eta txerriarentzat jarria zegoen kakoan zintzilik geratu. Emakume illak, bere diru-gose eta berekoikeriz, bi aldiz zerriaren ordezkotza egin bear izan zuten⁹³.

KONJURATZAILLEARI DEABRUA AGERTZEN

Ba omen zen arri-jasaren kontrako konjurua egiteko almen berezia zuen apaiza. Apaiz au eguneroko bazkalondoko siesta egitera joan zen, eta bere neskamea, ikasia zegoenez, esnatzera joan bear zuen laiño beltzen bat agertzen zen bakoitzean, arri erasoaren adierazgarri. Laiño beltza agertu zen eta bai neskameak apaizari deitu ere.

Apaiza bereala bere rituala artu, estola jarri eta konjurua egiten asi zen. Ontan, etsaia azaldu zitzaion esanaz: «Oik dire kanpo ederrak darena! Oik denak galtzeko zaldizko ederrak badauzkat nik! » Au entzunik, apaizak erantzun zion: «Baita nik ere badauzkat zure indar oiek geldiarazteko frenu ederrak!» Ordun etsaiak apaizari esan zion: «Ekatzu siñale bat». Apaizak bere bi eskuak liburutik kentzeke oin bateko zapata bota zion deabruari.

Apaizaren konjurua arri-jasa mendiruntz bidali zuen, eta arritartean azaldu zen baita ere konjurtzailleak deabruari botatako zapata⁹⁴.

93. Donamarian: Eulalio Orbegozo Arrieta, 69 urte. *Suainea* baserria. 1986ko. irailaren 7.

94. Tolosan (Usabal auzoa): Juan Krutz Errazkin Albisu, 82 urte. *Soroa* baserria. 1988ko. urriaren 30.

Ezagutzen dut kontakizun onen bertsio bat baiño geiago. *Atarrabio*-n aipatutakoak gogoratu besterik ez dut egingo. Ikus Azkue, Aip. lan. 70 orr., eta «Atxular, Axular»-en J. M. Barandiaranek jasotakoa, O. C., I, 45 orr.

Sorgiñak

SARRERA-GIXA

Zugarramurdi aitatzea aski, gertakizun triste eta odoltsuak ere oroitarazteko, kontakizun izugarri eta esan ezin alakoekin, sorgin-misterio illun-beltzez naasirik.

Sorgiñak egan ikusi dituztela seguru dioten lekukoekin, sorgin-mundua irudimen esnagarri da noski. Sorgiñen gaia, diabruzko eta aztikerizko ukenduz beren buruak igortzita, auntz, katu, zaldi, eta bestetan antzaldatzen direlarik, beti zerbait berri eta jakingarri dagerkigu. Penagarria da benetan, gure aspaldiko kondaira zati au, gertaera triste eta ezgizakoiengatik zenbait ilgai gaixo, errugabeen odolez kutsatu izana. Gizaki errukarriak, geiengo baten zoraldiz eraillak! Menditar gizarajoez eta erantzukizundun beste batzuen ezjakiñak ez, baizik gaiztakeriak lagundurik.

Zugarramurdiko plazatik, *Akelarre leizera* joateko, bide polit, eroso batetik zear goazke, baserri landutakoz jantzia geienbat, sorgiñ eta mugalari edo kontrabandisten kontakizunez aberatsak. Gure aldean, pendiz txiki batean, beorra, begirazun illunez guri zearka begira, gogo motel eta soraioki, belarra zurdaz laztantzen zuela. Begira, begira zegokigun sorgiñen bat ez ote? Aurreraxeago, aiton elbarri zurezko ankaduna, zarpail jantzia, atez-ate eskale. Dudarik gabe, aztikerizko eremu aberats batean gabiltz, zoramen-giroan, benetan ikusgarri eta apartekoan.

Bidearen azken aldera, aldapatxo leun bat igaroz, gure azpikaldean orra non dakusgun aurrez-aurre *Leize* zoragarria, eguzkialdera. Ur garbiko errekatxo batek zearkatzen du *Akelarre aizpea* astiro-astiro. Larriune batetarako, *Akelarre-lezeak* ba du erdialdean zuloa kanpokalderaiño dijoana. Ori bera da deabruaren sarbidea sorgin-billeratan oikunearen buruzagitzara datorrenean.

Akelarre arpe orretan Barrenetxeako jauna agurtu genduen, bide albotan ikusi genituen basetxe batekoa. Baserri orretan bizi izan zen *Sorgiñ-erregiña*, Graziana Barrenetxea, sugarretan erretzera zigortua, Logroñoko Inkisiziño Auzitegiaren Auto de Fe delekoan 1610-garrenean. Aldiberean, Auzitegi bero-

rrrek epaipetuak ageri dira bere bi alabak ere: Estebania eta Maria Iriarte. Barrenetxea andreak, larogeitaka urtedituena, aitortzen du xaloki, sorgiña izan zela ia irurogeitamar urtez, Akelarreko batzar-buru deabruaren ezkerretan, eta umeak airez zeramazkila sorginbillerara, beraz, egizta dezakegu jakin zuela izaten eta agertzen bizitzako unerik beiñenean, egiazko ta ziñezko sorgin bezela.

Epaiaketa bitartean kartzelan il zen, orrela sugarretan kixkalita amaitzeari igesiaz. Arratsaldera, utzi genduen *Sorgin-lezea*. Eta or dago bere bakarrean, miaztaillerik gabe bere biurgune ezko ta illunakin, ixiltasun giroan, akelarre orduaren zai. Errekatxo marmalariak bakar-bakarrrik darraio ango lekukorik zintzoen izaten⁹⁵.

BADIRELA ADITZERA EMATEN DUTE

Errazkingo gizon bat Betelura aldatu zen, eta trabenako solasaldian, sorgiñekiko gaia azaldu zen. Aipatu gizon orrek zion, berak etziela iñolako bildurrik. «Sorgiñik ez duk», errepikatzen zuen.

Errazkingo bizilagun au *Otxokiñenea* baserrikoa zen, eta bein illunduta gero etxera zijoala, *Lulota* deritzan parajea, arriturik entzun zuen esaten ziotela: «*Otxokiñeneko* estudiante jaune, ez gerala baiña bagaituk. Milla zortzitanenun bagaituk, Maria Joana Bidanikoa eta bere alaba falta dituk»⁹⁶.

BIZI DIRENAREN SIÑALEAK

Astiasuko *Elorrita* baserrian bizi zen gizon bat sorgiñetan etzuela sinisten erronka jotzen zuena. Baiña, etxeruntz zijoaneko gau baten batere uste gabe jarri zitzaion aurrekaldean sorgin-talde bat oiuka ziotelarik: «Kaixo *Elorrita* panparron!, ez gerala baiño bagaituk. Milla eta bosteun emen gaituk. *Mari Txuri* eta beste bat falta dizkiagu»⁹⁷.

ELIZA UTZI EZIN ETA BERE BURUA AGERTU

Erri bateko bizilagunek bazekiten beren artean bazela sorgin bat; baiña nor zenik ez ordea, elkarteari ezezaguna zitzaion.

Egun batez, meza amaitzean, apaizak liburua irekita utzi zuen eta meza-entzuleek eliza utsik laga. Apaizak ateak itxi nai izan zituenean, oartu zen andre bat barruan zegoela irten eziñik. Abadeak ori ikusirik, galde egin zion

95. Pasarte au duela urte batzuek argitara eman nuen lan baten zatia da.

96. Errazkinen: Jose Beraza Artola, 83 urte. *Apeztegia* etxea. 1978ko. urtarrillaren 22.

97. Alkizan: Maria Usabiaga Larrarte, 44 urte. *Lete* baserria. 1978ko. urriaren 1.



ea zergatik ez zen ateratzen besteakin batera, eta andre sorgiñak erantzun, ezin zela irten aurrez misala ixten ez bazuen. Ori entzunik, apaizak itxi zuen meza-liburua eta ondoren emakumea zutiturik bere etxera abiatu zen⁹⁸.

BI KANDELA PIZTU ETA EZAGUTUARAZTEN DA

Ondarribiko basetxe batean, ganadua bear bezela zaintzen zuten; ala ere ordea, beti argal, ezurtsu eta gau osoan marruaz ixiltzeke. Baserrikoek ikuil-lurutzen zirenean etzuten ezer apartekorik nabaitzen, abereak beti tente eta izuturik zeudela izan ezik. Baserrikoei otu zitzairen erriko erretoreari esatea zer gertatzen zitzairen, eta onek jakiñarazi zien, gauza ori sorgiñen lana bazan, etzala zailla izango jatorria ateratzea.

Ortarako, bi kandela bedeinkatu pizturik lurlean jarri bear zituzten eta kaja baten barruan utzi azpikaldea libre zuela. Kaxa gañekaldea zaku bat zabaldu bear zuten sorginak kandela piztuak ez ikusteko moduan. Onela, sorgiñak etzuen ikullutik aldegingo, barruan geldituko zen.

Gautu zuenean, apaiza eta nekazaria esan bezela kandelak ezarri eta ezkutatu ziran. Gaberdialdean, ganaduak asi ziren marruaz, oi zutenez. Ontan, argia pizturik, ikusi zuten katu beltz bat bei baten gaiñean, aberea bein da berriz aitzoz zauritzen. Katuak ekin zion arrenka bizian apaizari eta baserritarrari kaxa barruko kandelak itzaltzeko, eta miauka asi zen. An zeuden bi gizon aiek ordea jakin nai zuten sorgiña nor zen, eta ortarako apaizak esan zion bere lagunari eguna argitu arte zai egon bear zutela. Ala egín ere zuten, eta goizargitzen asi zenean ikusi aal zuten katuak pixkana-pixkana emakume zar baten itxura artzen zuela, eta bera apaizaren eta baserritarren auzotar ezagun bat zela, ain zuzen⁹⁹.

TXAKUR ITXURAZKO SORGIÑAK EGIZKO SORGIN ZIRELA SALATZEN DIOTE ANDRE BATI

Intzako baserritar bat tabernazalea zen oso, eta beiñola gabaz etxera-koan, bidera atera zitzaizkion zakur-zar batzuek bidealdi guztian jauzika eta zaunkaz gelditzeke. Gizona, erabat izutua, etxeko atera eldu zenean, bere emazteari deadarka deitu zion laguntza eske. Andreak atea irekiz, zakurrei oi u egin zien: «Alde, alde!» Ori esan eta bat-batean zakurrak ezkutatu ziren

98. Auzan (Ultzama): Antonio Lasarte Ostiz, 80 urte. 1988ko. abuztuaren 14.

Aipamen labur batetan J. M. Barandiaranek ematen digu kontakizun onen berri. Ikus *Obras Completas*, II, *Eusko-Folklore*, 492 orr.

99. Gaintzan (Araitz Arana): Ramon Askarai Arsuaga, 55 urte. *Matxindo* baserria. 1984ko. urtarrillaren 11.

Zenbait aldagetarekin kantakizun au jasota dauka J. M. Barandiaranek. Ikus *O. C.*, II, *Eusko-Folklore*. 493 orr.

arrastorik utzi gabe, eta gizona konturatu ere gabe. Orduan nekazari ark sinistu zuen bere emaztea eta zakur aiek sorgiñak zirela¹⁰⁰.

GABA BERAIEA DA

Gaintza erriko *Ostokaitz* basetxean, gabero errosarioa esateko oitura zuten. Usadio ori etzen ordea denen gogokoa, errezoa asten beintzat, neska zar batek artu aizkol-txikia eta soka eta mendira joaten zan egur-txikitza. Jokabide onek amona kezkarazten zuen, egunen baten sorgiñak eramango zutela esaten ziolarik.

Gau batez, atera zen bada igeslaria beti bezela egurgintzara eta etzen geiago itzuli.

Amabiak aldean, sorgiñak bota zituzten tximinitik bera aizkora, soka eta neskazarrarenak izandako soiñekoak ere, itz auek entzuten zirelarik: «Gaube, gaube koentzat eta egune, egunez koentzat; baiña *Ostokaitzeko Katalin* guretzako»¹⁰¹.

GABA BERAIEA IZAN

Bedaioko gazterik ederrena etzuen gauak ikaratzen. Ori orrela, bein batean apustu egin zuen berak gabaz etxeari bi buelta emango zizkiola. Eta ala, lenengo bira bukatu eta bigarrena amaitzera zijoala, inguru aietan onako itz auek entzun ziren: «Eguna egunez koentzat, eta gauba gaubez koentzat, Mariatxo orain guretzat»¹⁰².

BETIKO EZKUTATU ZEN NESKA

Amezketako etxe baten gazte batzuk biltzen ziren irutera, eta gau berandu beren etxeetara zijoazela, au entzun zuten: «Eune eunez koentzat, gaube gaubez koentzat, eta *Katalintxo* neretzat»¹⁰³.

100. Betelun: Jose Artola Goikoetxea, 70 urte. *Joangonea* etxea. 1980ko. otsaillaren 11.

101. Gaintzan (Araitz Arana): Ramon Askarai Arsuaga, 55 urte. *Matxindo* baserria. 1984ko. urtarrillaren 12.

Sorginen eskuartzea gauarekin identifikatzen da, beraiek adierazten duten bezela zuurtasunik gabe eta bein eta berriro.

102. Tolosan (Aldaba Txiki auzoa): Fernando Aristi Garmendia, 75 urte, eta Jose Aristi Garmendia, 73 urte. *Isasti Goikoa* baserria. 1988ko azaroaren 20.

103. Amezketan: Juana Agirrezabala Artola, 67 urte. *EzkoIgorro* baserria. 1988ko. uztailaren 8.

APAIZ BATI AOLKU EMAN ETA DEABRUAREN URTEAK JAKIN

Juan Tarrabiel apaiza zen, abade jakituna. Eta elizgaietan ongi jantzia izanik, inpernuarekiko arazoetan ere sartu nai izan zuen. Gogo ori bete naiaz, sorgin baten bulegora jo zuen; eta bidean zijoala, liburu saltzaille gazte batekin topo egin zuen. Gazteak jakinarazi zion, salgai zeuzkan liburuak, inpernuarekiko gaiak ziardutela. Ori entzutean, apaizak aietako bat erosteko gogoa azaldu zuen, eta liburu-saltzailleak baldintza au jarri zion, aurrez, odolez siñatu bear zuela eraman nai zukean alea. Apaizak onartu zuen proposamena, eta egun osoa paketsu ematen zuen irakurketan; gauez ordea nekarazten zuen arras, eta atsedena galerazten zion.

Gauzak orrela, damutu zitzaion liburua eresia, eta Elizaren araei amor emanaz, bide zuzenera itzultzea erabaki zuen. Abiatu zen bada deabru saltzaille gaztearengana, eta berarekin topo egiñaz, adierazi zion liburua biurtzera zetorrela. Apaizari ori entzutean, deabruaren erantzuna au izan zen: «Zenbat urte ditudan asmatzen baduzu, zure gogoa beteko degu». Ori entzunik, abadeak sorgin gazte batengana jo zuen, zer gertatzen zitzaion azalduz. Sorgiñak entzun zion eta erantzun erreza zela deabruaren adiña jakitea. Apaiza eta sorgiña elkartu bear zuten lekuan, zugaitz bat zegoen inguruan, bi adar urkilla moduan zituena. Adar bi oien erdian jarri zen sorgiña zutik billutsik, atzekaldera etzana, eta illeak ankartean zintzilik zituelarik.

Deabrua urbiltzean, sorgiñak atentziua bereganatu nairik, arbazta otsa aterazi zuen. Etsaiak, begibistan agerkizun ain nabarmen ura erreparatzean, ala zion: «Mundu onetan baditut ogeitabi urte; baiñan onelako gauzik ez dut sekulan ikusi». Ori aditzean sorgiñak, apaizak jakin izan zuen deabruaren adiña eta uste zuen libratuko zela inpernuarekiko azterketaz.

Baiña ala eta guztiz ere etzen ongi arkitzen. Elizgaietan azkarra eta jakituna izanik, ba zekian zerua irabazteko mezerdikoan erail bear zutela –eta emen gogora datozkit kontakizun berdintsuak– eta sankristauari eskatu zion bete zezala egiteko latz ori. Asieran, lenengotik, etzen ausartu obeitzen; baiña gauza bera bigarrenez erregutzean, eta zer gertatzen zitzaion jakiñik, abadearen esanera jarri zen, eta sagarakoan tiro batez bertan il zuen.

Ortarako apaizak esana zion sakristauari, bera il ondoren, bere biotza ezar zezala aga baten muturrean, eta putreak eramaten bazuten, inpernuan zegoen siñale zela, eta uxok bazeramaten berriz, zeruan zegoela adierazten zuela.

Putreak etorri ziren eta egan itzuli-mitzuli egin, baiña etzuten ikutu, iru uxo txurik oster, berekin artu zuten. Eta sakristaua, gertatuaren lekuko izanik, oso pozik¹⁰⁴.

104. Gaintzan (Araitz Arana): Ramon Askarai Arsuaga, 55 urte. *Matxindo* baserria. 1984ko. urtarrillaren 11.

BERE BIZIMODUA

Sorgin batzuk eurak bizi ziren beren leze-zulotik irten, eta Intza errira jetxi ziran. Emagin baten billa etorri ziren, eraman eta berriro ekarriko zutela esanaz. Emakumea ordea bildur zen eta etzan ausartzen beraiekin joaten; baiña azkenik, amor eman zuen eskatzen ziotenari.

Kobara iristean, sorgiñak aitortu zioten eurak an bertan bizi zirela. Eta emagiñak erantzun, ea nola bizi zitezken toki artan jatekorik ezer gabe. «Gu besteren ezezkotik bizi gera, zuek asko erein eta gutxi biltzen duzutenean, ordun guk asko biltzen dugu, eta zuek asko biltzen duzutenean berriz, guretzat gutxi geratzen da», erantzun zioten sorgiñek.

Andrea oartu zen baia eder bat zeukatela, eta sorgiñak esan zioten: «gu gaubez bildu eta egunez jateko jarriak bai gera».

Emagiñak bere lana bete zuenean, ogi erdia eskeñi zioten, eta berak ixilka-mixilka, beste erdia ere beretzakotu zuen.

Baiña, etxealdera abiatzean, emakumea pausorik eman eziñik gertatu zen. Ori ikusirik, sorgiñak galde egin zioten ea berea etzan zerbait bereganatu al zuen. Orain bada beste ogi erdi ori ere zurea da; baiña etzazula iñoiz ezer zeureganatu eskatu gabe, esan zioten sorgiñek.

Emagiñaren etxera biurtzeko bidea itxita zegon; baiña aren bidelaguntzaille sorgiñentzat etzan batere eragozpenik izan¹⁰⁵.

TXAUTOKIAN

Domingo Igarabide, *Juanagorri Zarrak*, nere berriemalleari jakinarazi zion, beiñola txautoki batera urbildu zela eta erropa garbitzen ari ziren neska gazte batzuekin topo egin zuela.

Aietako batek zapi bat eman zion Igarabideri biurri zezan; baiña onek ikutu bezin laister, zapia elorri-beltz sorta biurtu zitzaion. Txautokiko neska gazte aiek sorgiñak ziren, noski baño noskiago¹⁰⁶.

ERROPA ZURITZEN ERREKATXO BATEAN

Abaltzisketan, Larraitz ermita ondoko errekan, *Artzupian* deituan, sorgiñak etorri oi ziren erropa garbitzera, au da lixu jotzea euskaldunok diogun bezela beste deitura moduen artean.

105. Betelun: Migel Jose Goikoetxea Otermin, 80 urte. Kontakizun onek gogorarazten dit Azkuek jasotako beste bat, bere izenburua *Una lamia y su partera*. Aip. lan. 425 orr.

106. Betelun: Santos Zubillaga Jauregi, 80 urte. *Ipiarrea* baserria. 1975ko. uztailaren 27.

Arrupe baserriko morroiak zioenez, etxera bidean, aipatu errekatxo ondolik gauetz zijoala, entzun omen zuen sorgiñek latsarrian zapiak astinduz intziriz ziotela: «Ba direla, ez direla!»¹⁰⁷.

AIZKOLARI AZKARRAK

Azkarateko baso-aizkolari batzuk joan ziren egur billa erriko oianera, eta aizkoraz zugaitz botatzen ari zirela, sorgiñak agertu zitzaizkien. Sorgiñak lan orretan oso trebeak azaldu ziren. Ori ikusirik, ikaratu ziren baserritarrak eta etxeruntz abiatu; baiña bein da berriz, egur-pillak arkitzen zituzten bidean enbarazuan, sorgiñak, oraingo onetan ikuseziñak, pilloturik.

Baserritar bildurtuak karraxika asi ziren, baiña sorgiñak bere bide-eragozte lanean ziarduten ezkututik, nekazariei oiuka ziotelarik: «*Joanpintz-enea*, jo auntz eta etorri onuntz, da ortzak zorrotz», anketan ortzaka egiten zieten bitartean. Sorgiñak orrela jarraitu zioten errira urbildu arterañoako guztian¹⁰⁸.

ETA IRULEA

Kallu –urdai-axaletik artutako deitura– ikazkiña omen zen, eta bere emaztea iruten, goruetan, au da, ardatzgingintzan aritzen zena, illunabarretan eta gau asierako leen orduetan ere bai. Eta langintza orretan ari zela, aurrean jartzen omen zitzaion beti tximinitik bera sartuaz, sorgin bat, jakiñeko olio eskea egitera, eta atsegiñez, edan egiten zuen.

Noizbait iruleak gertatzen zitzaionaren berri senarrari eman zion, esanaz nola bisitatzen zuen egunero-egunero, eta *Kalluk* ori entzunik, emaztearen kapa jantzi eta aren lekuan goruetan asi zen.

Beti bezela, sorgiña etorri zenean, onela agurtu zuen ardazketan ari zen irulea: «Nor aiz i?, leenago *pirri-pirri* aitzen itzanen, eta orain *koka-koka* aiaiz». Oar au *Kalluren* trebezirik gabeko lan berriagatik zion, txarabilla sarri erortzen bai zitzaion lurrera, *koka-koka* antzeko soiñua atereaz.

«Nor aiz i?», sorgiñaren galderari, *Kalluk* erantzun au eman zion: «Neurre, neurren buru», eta ori esanaz batera, zartagian zeukan olio erreka artu eta aurpegira bota zion. Orduan, etengabeko miñ-oiuka, sorgiñak igesari eman zion arin asko tximiniko zulotik gora.

107. Abaltzisketan: Juana Goiaz Albiztegi, 76 urte. *Sasin Barrena* baserria. 1986ko. ekainaren 22.

Kontakizun berdiña edo antzekoa entzuna dut erri bat baiño geiagotan, eta ikertzaile batzuk jaso izan dute.

108. Azkaraten (Araitz Arana): Ramon Otamendi Goikoetxea, 79 urte. *Mokoroa* baserria. 1980ko. abenduaren 26.

Beste sorgin lagunak ain egoera negargarrian ikusi zutenean, galdetu zioten: «Zeiñek egin din, zeñek egin din?...», eta arpegi-erreak erantzun negar-zotinka: «Neurre-neurren buruk». «Ba, eorrek eorren buruari egin badion, izurrari!», esanik, beragandik urundu ziren¹⁰⁹.

ETA ITZAIA

Karroa, edo obeki, orga izan zen, denok ongi dakigunez, aspaldiko gauza karriatzeko tresna.

Dionixio Aseginolazari zor diot bere aspaldiko itzaia izan zeneko gorabera guziak jakin izana. Aseginolaza, *Munita Bekoa* zeritzan basetxean jaio zen, Tolosa-ko barrutian, eta bere bizitzaldirik geientsuena, *Errondosoro* basetxean igaro zuen, ordungo Gipuzkoako iriburuan, *Sorgiñerreka* deituriko urlasterraren ondoan.

Ez noa emen aren itzai-bizitzako zertzelada guztiak aipatzera. Jakingarri dena soilki azpimarratuko dut.

Aseginolaza artean aurra zen, bere auzokide itzai zar batek kontatzen zionean, gaberdiz nola joan oi zen aspaldi aietan, idi-pareakin *Azurtzi* bere egoitzara. Gaur bide zarra deritzaion ibiltoki ezezagun eta baztertutik joan oi zen, eta *Sorgiñerreka* gaiñetik igarotzean idi parea ezkuta zitzaion batetan, binbitartean garraixi au bein da berriz errepikatzen ziotelarik: «Ez direla baño badirela».

Bautista Lopetegi –ori zen itzaiaren izena– bere baserrira iristean, ganadua ikuilluan zegoela arkitu zuen, ezer apartekorik gerta ez balitz bezela. Abere bat uztarriakin eta bestea berriz katea lepotik zuela, idien erosotasunagatik lana bukatu ondoren oi zutenez¹¹⁰.

ARTZAI EI MEATXUA

Sorgin batzuk eguzkitan zeudela bere koba ondoan, oartu ziren bi artzai urreratzen zitzaizkiela. Ori ikusirik, aguro asko, leze-barnean ezkutatu ziren, kanpokaldean orrazi bat utzirik.

Artzai aietako bat *Kelatxo* baserrian bizi zen, eta bestea *Meñonea* izenekoan. Koba uztean, sorgiñak orrazia falta zutela konturatuz, aietako batek *Keal-txo* atarian onela galdetu zuen: «Maria Inazia, nun da nere buruko orrazea?» Eta artzaiak onela erantzun: «Nik ez tet, *Meñonean*, *Meñonean* egongo da».

109. Goizuetan: Zeferino Etxegia Berroeta, 63 urte. *Paskoltzenea* etxea. Gertrudis Zubillaga Arrieta, 84 urte. *Fuentenea* etxea. 1986ko. Iraillaren 21.

Funtsean kontakizun onek badu antzik A. Donostiak bildutako «La lamia escarmentada» delakoarekin. Ikus Aip. lan. 131 orr.

110. Tolosan (Auzo Txikia auzoa): Dionisio Aseginolaza Mugika, 76 urte. *Errondosoro* base-ria. 1982ko. maiatzaren 15.

Sorgiñak joan da jo zuen bada *Meñoneako* atea eta galdera bera egin: «Maria Inazia, nun da nere buruko orrazea?» «*Kelatxon, Kelatxon* egongo da».

Ori ikusirik, sorgiña aldendu zen meatxu au botiaz: «Zazpi gizalditan *Kelatxon* begiezkelik ez da faltako, eta ez *Meñonean* itzotelik ere»¹¹¹.

SORGIÑA ETA AUNTZA

Burgiko almadiakari batzuek almadian ibilli ondoren, Ezka-Salbatierra eta Burgiko mugan, aietako batek, Larranbe deituak, erreparatu zuen, aunts erren bat zegoela, eta nekez ibilli zitekeala ikusirik, lepoan artu eta eraman zuen Erronkari erroko erromatar zubiraiño, an lurrean utzirik. Almadikaria etxeruntz abiatu zen, baiña etzituen bi pauso emango, ara nun auntsa begira-begira jarri eta onela esan zion: «Eskerrak Larranbe». Delako auntsa, sorgiña, aintxiña, Burgin bizitua izaki¹¹².

SORGIÑA ETA OILLOA

Bidankotzen gaituzu, erronkaritar erria, sorgiñ ar eta emeak beretzat artua, noski. Orko *Santxenea* etxe arrera-onekoan, maiz bertan izana bai naiz ikustaldi luze eta atsegiñak egiñaz, Konstanzia Perez Sanzek, beretarren lengo taberna du gogoan, Erriko taberna, edozein aitzakiz gazteria festa-giroan kitarrak joaz gau-errondan ibiltzen zirenekoa.

Konstanzianaren arbasoen garaiak ziren, eta bein, irteera zaratatsu aietako baten, errondalarien aurrean oillo bat jarri omen zitzairen, batere uste gabe.

Gazteek uts egin zuten egaztia arrapatu nairik, baiña aietako batek lepoan makilkada bat ematea lortu zuen. Urrengo goizean, erriko andre bat etzan oetik jeikitzeo gauza, eta bere senideak ikustera joan eta beregana urbiltzean, erreparatu zuten lepoa okertua zedukala, eta orrela konturatu ziran, bezperan makilkatu zuten oilloa sorgin bat zela.

Santxenea bertan ere jakin dut, badela beste kontaera zerbait ezberdiña, dioena gazte errondazale batek oilloa atzi eta lepoa biurtu ziola, bizirik utziaz. Biaramonez, andre zar bat, sorgin fama zuena, oean zetzan lepoa okertuta¹¹³.

111. Intzan (Araitz Arana): Kandido Goikoetxea Otermin, 65 urte. *Ostatua* etxea. 1971ko. azaroaren 9.

Kondaira onen ikutuak jaso ditu J. M. Barandiaranek. Ikus O. C.-II-, *Eusko-Folklore*. 196-199 orr.

112. Burgin (Erronkari Arana): Kasimiro Urzainki Glaria, 76 urte. *Kasimiro* etxea. Karlos Zabalza Elizalde, 73 urte. *Karlos Zabalza* etxea. 1987ko uztaillaren 28.

113. Bidankozen (Erronkari Arana): Konstanzia Perez Sanz, 81 urte. *Sanchenea* etxea. 1987ko uztaillaren 28.



SORGIÑA ETA KATU ZURIA

Nekazari-etxe baten sumatzen zuten ikuilluko ganaduek adarka zebilzala, beren kate eta soketatik askaturik. Ori gertatzen zenean, sendi artako gizonetakoek kortara jeisten ziren eta ikusten abereak aztoraturik eta oso adarkari, eta nabaitu zuten baita ere, katu zuri bat zebillela urduri batetik bestera.

Ori bera gauero berritzen zan, alako baten ordea, iru aldiz makillaz jo al izan zuten mitxinoa. Lenengo eta bigarrenko kolpeaz ez zen katua asarretu; irugarrenkoa artzean ordea, igesari eman zion. (Oartarazi nai nuke oraingo onetan bezela beste olakoetan ere, kolpe bakoxtiak, ezpareak balio izaten duela).

Gertakizun orren ondoren, ganaduak oizko patxara artu zuten, eta beren egoitzetara bildu zirenean, ekintza artan parte artu zuen gizon batek bere andrea kolpatua zegoela oartu zen¹¹⁴.

SORGIÑA ETA KATU BELTZA

Baserritar bat, makilla eskuan sorora bidean saltoka zijoala, orra non jarzen zaion aurrean katu beltza, esanaz: «Gizona izan eta saltaketan?» Ori entzunik, nekazariak erantzuten dio: «Katua izan eta berriketan?», eta maki-llaz jo zuen katua gerrian.

Biamonean gizonak jakin zuen atso zar bat gerriko miñez zegoela.

Andre au sorgiña zen¹¹⁵.

SORGIÑA ETA BEOR BELTZA

Eguna argitu-aurrez, Sunbillako aita-seeak kurandera batengana abiatu ziren –Martina Oizengana– Ultzama Ibarreko Auzan.

Armuñegi mendiko errekatxoa igarotzean, batere uste gabe, jarri zitzaien aurrean beor beltz bat. Bidean aurrera zijoaztela etzuten begiz galtzen beorra, betiere beren aurretik zijoana. Ikuskizun ori zela ta semea ikaratu zen eta aitari galdetu zion, ea zer izan ziteken ura. Aitak erantzun zion ez izateko bildurrik, ura sorgiña zela ta. Eguna urratzearekin batera beor beltza desagertu zitzaien¹¹⁶.

114. Ullibarri-Aranan: Petra Beltran de Heredia Sagasti, 91 urte. 1988ko. uztaillaren 10.

115. Salvatierra-Agurainen (San Martin auzoa): Karmen Goñi Oiarzabal, 87 urte (Hernanin jaioa). 1988ko iraillaren 28.

116. Auzan (Ultzama Arana): Antonio Lasarte Ostiz, 80 urte. 1988ko abuztuaren 14.

ETZUEN KALTERIK EGIN NAI

Burgiko sorgiñen artean ba zen bat aundiki jokaerazkoa. Burgiko etxe fuerte, etxe oneko emakume batetzaz sorgiña zela esaten zuen jendeak. Baiña oraingo ontan, *sorgin señoia* zen iñortxori gaitzik egin nai etziona, kalterik iñori egiteko gauza ez zena. Eta ori egiztatzeko, eta bere sorgiñ-almenez auzokorik ez nozitzearren, bere aziendatik zaldizko bat il-eskaintzen zuen¹¹⁷.

SORGIN BIURRIKERIAK ETA LEKUNBERRIKO BI KORKOX

Nafarroan, Larraun Ibarreko Alli errian, *Lezeta* zeritzaion kobatako batean sorgiñak bizi ziren.

Larunbata-gaua zen sorgin oek, betiko oiturari jarraiki, lezeari kanpotik bira batzuk ematen ari zirela onela kantatuz bein da berriro: «Astelena, bat; asteartea, bi; asteazkena, iru; osteguna, lau; ostirala, bost; eta larunbata, sei».

Larunbata aietako baten, sorgiñen jardunaldian egokitu zen Lekunberriko zapataria, aitatutako ballara bereko Astiz errira zijoala. Oiñetakogillea zapata konponduak entregatzera zijoan, eta sorgiñen kantuari au erantsi zion: «Igan-dea, zazpi».

Zapatari delakoa korkoxa zen, eta erantzun pozgarri au jaso zuen sorgiñengandik: «Ekar zak konkorra eta ua ortik».

Bere egitekoa beteta gero, Lekunberrira itzultzean, konkordun izandako zapatariak bere auzotar beste korkoxarekin topo egin eta jakiñarazi zion berari gertatua. Ori entzunik, korkoxak bereala esan zion: «Ni ere banijoa».

Esan eta egin. Autatu eguna iristean, konkorduna urbidu zen sorgiñtegira, zapatariaren leloa bera errepikatuz: «Igan-dea zazpi», baiña sorgiñen erantzun garratza entzun bear izan zuen gizarajoak: «Artu konkorra eta ua ortik». Eta orrela gure gizontxoak konkor-bidun geratu zen. Eta sorgiñaz eta zapatariaz mintza geranez gero, aipa dezadan *Larunbata akelarren* deituriko olerkia, Serafin Barojarena, bere billoba Julio Caro Barojak gogora dakarkiguna¹¹⁸.

117. Burgin (Erronkari Arana): Kasimiro Urzainki Glaria, 76 urte. *Kasimiro* etxea. Karlos Zabalza Elizalde, 73 urte. *Karlos Zabalza* etxea. 1987ko. uztailaren 28.

118. Alli (Larraun Arana): Juan Arangoa Astiz, 81 urte. *Arretxea* baserria. 1982ko. otsaillaren 5. Emen agertzen da sorgiñek igandeari zioten ezinikusia. Funtsean kontakizun au bat dator Xosé Ramón Mariño Ferro-ri irakurtzen diogun korkoxa eta sorgiñen ipuiarekin. Ikus Aip. lan. 172-174 orr. Badu antzik Julien Vinson-ek jasotako «Los dos gibosos» delakoarekin. Ikus *Euskalerriaren alde*, IV. Al., 579-580. Julio Caro Baroja: *Las brujas y su mundo*. Alianza Editorial, 1966, 282 orr.

SORGIN BAT NOLA IL

Hondarribian, Guadalupe aldean, baserri bateko amona sorgiña zen, eta auzo berean bizi zen txerri-iltzaillea Lorentzo izenekoa. Bein bere zeregiña betetzera sorginaren etxera deitu zuten, eta olakoetan oi denez, bertan afaltzera gelditu.

Gau-beranduan zerri-iltzaillea bere etxera zijoala, erdibidean aize-erauntsi batek jo eta txapela eraman zion. Gizonak pentsatu zuen aize zakar aren baitan sorgiña zebillela eta berak bazekila ura nola akabatu. Txerriari eusteko kakoa lepotik zintzilik, aiztoa esku banatan zuela, eta ao-pizarrak atzekaldera zituela, zortzikoa dantzatu zuen. Eta puntua aizto-kolpez markatzen zuelarik, sobaldatik jotzen zuen aizea bertatik gelditu zen.

Gizonak, etxeratu bezin laister, gertatuaren berri bere emazteari eman zion; sorgiña akabatu zuela, alegia.

Biaramun goizean entzun zuten argiezkillarekin batera il-kanpai otsa, txerri-iltzaillearen andrea arras izutuaraziz.

Gorputz-eramailleetako bat Lorentzo zen, eta ildegira iristean, zarata ots biziak entzun ziren ilkutxatik zetozenak, eta ori zela ta angarilleroak, gertatzen zenaren berri ongi zekitenak, presaka lureman zioten, apaiza ezertaz konturatzeke. Amona ilobiratu zuten eta berarekin ezkutarazi zuten sorgiña ere bein-betiko¹¹⁹.

SORGIN BATEN ERIOTZA

Beteluko gazte bat Lekunberrira joan-etorria egin oi zuen bere osaba maiuarengana ikasketak burutzera.

Gabaz etxerakoan, Lezaetaaldera inguratzean, utsegiteke, gizon bat, edo bestela, emakume bat aurkezten zitzaion, enparazitza.

Ikaslea ikaratzen asi zen, eta jun da apaizari konta zizkion gertatzen zitzaiona. Abadearen erantzuna au izan zan: Ori onela bada, eskupeta bat emango diat, eta azaltzen zaikenean, tiroa bota iok. Urrengo egunean eguargidiko amabietan aterari *Elosta* mendiaren gaiñera eta ik kontuan eraman zak zein erritan illezkillek jotzen dituzten.

Gazteak apaizari obeitu zion, eta entzun aal izan zuen Uztegiko errian il-kanpaia jotzen ari zela. Gero galdetu zuen erri ortan nor eta nola il zen, eta jakin zuen *Artitxe* baserriko amona eskilleran bera erori eta burua ausita arki

119. Gaintzan (Araitz Arana): Rarnon Askarai Arsuaga, 55 urte. *Matxindo* baserria. 1984ko. urtarrillaren 11.

zutela ikullu barruan. Aurrerantzean, Beteluko isturiantea etzuen iñork geiago bidean enparazi, eta beraz, bukatu ziren bein-betiko aren bildur-ikarak¹²⁰.

120. Uztegin (Araitz Arana): Jose Antonio Artola Gibelalde, 83 urte eta Jose Artola Saralegi, 48 urte. *Soroazabal* baserria. 1989ko urtarrillaren 29.